



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko abuztuaren 22a

70. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F SAILA:

#### Galderak:

- Galdera, haur hezkuntzako lehen zikloa arautzen duen 28/2007 Foru Dekretua aldatzeari buruzkoa –arartekoak eginiko gomendioak, zaintzak, egutegiak, ordutegiak eta 0 eta 3 urte bitarteko ikasleentzako ikasketeen kalitate-irizpidea–. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Baluarteko fatxadaren ardura duen arkitektoak egungo errotulazioa ez aldatzearen alde emandako iritzia buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak Foru Komunitateko ikastetxeetan eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz egiteko duen aurrekontuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, jakiteko ba al dagoen Hezkuntza Departamentuak lagunduriko eskola-aldizkari bat euskaraz. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, jakiteko Hezkuntza Departamentua prest al dagoen berriro aztertzeko Hizkuntza Eskola Ofizialeko iraileko azterketen deialdia berrezartzea. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer asmo duen Rozalejo Jauregiari dagokionez. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Baluarteko fatxadan errotulazioa ele bitan jartzeko eginiko urratsei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Nafarroako Elkarten Erregistroan erregistraturik dauden irabazi asmorik gabeko, interes publiko edo onura publiko entitate eta/edo elkarteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Belateko mendatean konifero-espezieen landatze esperimentalari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Nafarroako Turismo Kontseiluari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Nafarroako Kulturaren Kontseiluak 2003-2007 epealdian eginiko jardueri buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, haur eta gazteentzako buru-osasuneko zerbitzuko aldaketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Vinsak Sarrigurenen eraikitako 73 etxebizitzaren jabeek eraikuntza-akats larriak direla eta aurkeztutako erreklamazioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).

- Galdera, lurralde antolamenduko planetan Nafarroa Atlantikorako aurreikusten diren museo etnografikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, Europar Batasunaren zerbitzuen gaineko zuzentarauaren eraginari buruzko azterlan bat egin behar duen batzordeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, Nafarroako Parlamentuak onetsitako erabaki bat betetze aldera Nafarroako Gobernuak eginiko izapideei buruzkoa. Erabaki haren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen zen beharrezkoa den prozedura abiaraz zezan Ezkabako Gotorlekua eta bere lurak eskuratzeko. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, ikerketa planari eta ikerketa-proiektu eta proiektu teknologiko berriak garatzeko Nafarroako beste enpresa publiko edo erakunde batzuekin lankidetzan aritzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, Informazioaren eta komunikazioaren teknologien sektoreari buruzko plan estrategikoaren gainekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren fundazioei 2003tik 2007ra bitarteko ekitaldietan eginiko sortze zuzkiduren eta transferentzien zenbatekoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- Galdera, jakiteko zer araudi aplikatzen zaion Nafarroako Gobernuaren fundazioetako lanpostuak betetzeari. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren fundazio publikoetan enplegatutako pertsona kopuruari eta horien nor-tasunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak fundazio publikoei emandako jarraibideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, haur hezkuntzako lehen zikloa arautzen duen 28/2007 Foru Dekretua aldatzeari buruzkoa –arartekoak eginiko gomendioak, zaintzak, egutegiak, ordutegiak eta 0 eta 3 urte bitarteko ikasleentzako ikastetxeen kalitate-irizpidea–.****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du haur hezkuntzako lehen zikloa arautzen duen 28/2007 Foru Dekretua aldatzeari buruz –arartekoak eginiko gomendioak, zaintzak, egutegiak, ordutegiak eta 0 eta 3 urte bitarteko ikasleentzako ikastetxeen kalitate-irizpidea–.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko martxoaren 7ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko apirilaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretuak –horrek arautzen du Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako lehen zikloa eta hori ematen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak eta ziklo horren hezkuntza edukiak– 2007ko maiatzaren 5ean hartu zuen indarra. Dekretu horren zortzigarren xedapen gehigarrian ezartzen da lehen zikloko irakaskuntza 2008/2009 ikasturtean ezarriko dela orokorrean.

Dekretu horren lehen eta bigarren xedapen iragankorren arabera, ikastetxe publiko eta pribatuek hiru urteko epea izanen dute, irakaskuntza hori ezartzen denetik, eskatzen diren baldintzetara egokitzeko, eta kasuaren arabera, ikastetxea sortzeko edo sortzeko baimena eskatzeko, dekretuaren IV. tituluan ezarritakoari jarraikiz.

Hezkuntza Departamentuak uste du 28/2007 Foru Dekretua ezarpen fasean dagoela. Hala ere, bere eskumenekoak diren hezkuntzako beste alorretan egin ohi duenez, departamentuak arretaz

zaintzen du dekretu hori, beharrezkoa balitz, Nafarroan haur hezkuntzako lehen zikloaren kalitatean eragina duen araudi zehatza eguneratzeko edo doitzeko.

Hezkuntza Departamentuak, nola ez, erakunde-harreman ona dauka Nafarroako arartekoarekin. Departamentuak erantzuten die arartekoak egindako galderei –jaso dituen kexei buruz–, eta bere txostenak eta gomendioak aintzat hartzen eta balioesten ditu.

Ildo horretan, Hezkuntza Departamentuak 28/2007 Foru Dekretuan sartu zituen arartekoaren proposamen gehienak; horien artean dago tokikopuruaren eskaintza nabarmen handitzea Nafarroako geografia osoan.

28/2007 Foru Dekretuak, bere bosgarren xedapen gehigarrian, zehazten du Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuari dago kiola haur hezkuntzako lehen zikloan hezkuntza arloko ikuskapen lana egitea.

Hori horrela, Ikuskapen eta Zerbitzuen zuzendari nagusiak ebazpen bat eman zuen urriaren 15ean, Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuaren Urteko Jarduketarako Plan Orokorra onesten zuena, 2007/2008 ikasturterako. Bere II. eranskinean, urteko planean (jarduera garrantzitsuen atalean), jasota geratu zen zerbitzu-jarduera hori ikasturte horretan eginen zela.

28/2007 Foru Dekretuak bere 15. artikuluan arautzen ditu Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeen egutegia eta ordutegia.

15.3 artikuluan honakoa dio: “Hezkuntza Departamentuak egutegia eta ordutegia prestatzeko beharrezkoak diren arauak emanen ditu ikasturte bakoitzeko.”

Ildo horretatik, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak, apirilaren 25ean, 407/2007 ebazpena eman zuen, non definitzen diren haur hezkuntzako lehen zikloa ematen duten ikastetxeek 2007/2008 ikasturtean izanen duten eskola-egutegia eta ordutegia egiteko arauak.

Hezkuntza Departamentuak uste du lehentasuna duela toki entitateekin hitzarmenak sinatzeak, udal titulartasunekoak diren eta Haur Hezkuntzako lehen zikloa ematen duten zentroak finantzatzeko aldera, eta zentro horiek 28/2007 Foru Dekretuan definitzen diren kalitate irizpideen arabera sustatzeko. Izan ere, egun, 56 hitzarmen sinatuta dauka Nafarroako zenbait toki entitaterekin, eta aurreikusita dago 2008an 5 hitzarmen berri sinatzea.

28/2007 Foru Dekretuak, bere 12.1 artikuluan, zehazten du Hezkuntza Departamentuak arautuko duela diru publikoa jasotzen duten ikastetxeetan ikasleak onartzeko modua, berdintasunezko baldintzetan egin dadin.

Ildo horretatik, 48/2008 ebazpena eman zuen Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak otsailaren 15ean, non udal titulartasuna eta Hezkuntza Departamentuaren eta toki entitateen arteko lankidetzak hitzarmen bidezko finantzabidea izanik, Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetan 2008-2009 ikasturtean haurrak onartzeko prozedura arautzen den.

Hezkuntza Departamentuak eta bere kontseilariak parte hartzen dute haur hezkuntzako lehen zikloa ematen duten udal titulartasuneko ikastetxe berriak egiteko finantzaketan eta aholkularitzan. Horren ondorioz, toki eskaintza pixkanaka handituz doa.

Halaber, departamentuak parte hartzen du udal titulartasuneko ikastetxeen funtzionamenduari finantziarioan eta kudeaketan, zeinak finantzatuta baitaude Hezkuntza Departamentuaren eta toki entitateen arteko lankidetzak-hitzarmenen bitartez.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak 2007ko urriaren 15ean onetsitako hitzarmenean –Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak 28/2007 Foru Dekretuari buruz egindako errekerimenduari buruzkoa–, esplizituki definitu zen Lege Organikoak haur hezkuntzako ikastetxeentzat 15.4. artikuluan ezarritako bi baldintzak –proposamen pedagogiko bat izatea eta langileak kualifikatuak izatea– betetzea eskatuko zaiela Foru Dekretuaren 13. artikulua baztertzen ez dituen ikastetxe guztiei; baztertutzat joko dira beren eskaintza urtebetekoa ez duten ikastetxeak.

Iruñean, 2008ko martxoaren 31n

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

## **Galdera, Baluarteko fatxadaren ardura duen arkitektoak egungo errotulazioa ez aldatzearen alde emandako iritziri buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Baluarteko fatxadaren ardura duen arkitektoak egungo errotulazioa ez aldatzearen alde emandako iritziri buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko martxoaren 14ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du jakiteko nor den Baluarteko fatxadaren ardura zuen arkitektoa, noiz adierazi zuen bere iritzia eta ba al dagoen horri buruzko txosten idatzirik. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

1.– Baluarteko fatxadaren ardura Patxi Mangado Beloki arkitektoak izan zuen.

2.– Bere iritzia gutun baten bitartez helarazi zion Baluarteke kudeatzaile Carlos Luri jaunari, 2006ko maiatzaren 15ean.

3.– Dagoen txosten idatzia gutun hori da, eta honekin batera bidaltzen da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko apirilaren 3an

Kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

(Oharra: aipaturiko eranskina foru parlamentarien eskura dago 7-08/PES-00096 espedientean, ondoko web helbidean hain zuzen:

<http://actividad.parlamento-navarra.es:8080/AgoraWeb/>

## **Galdera, Hezkuntza Departamentuak Foru Komunitateko ikastetxeetan eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz egiteko duen aurrekontuari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Hezkuntza Departamentuak Foru Komunitateko ikastetxeetan eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz egiteko duen aurrekontuari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko martxoaren 14ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Jarduera osagarrien eta eskolaz kanpoko jardueren programaren helburua da hizkuntza erregistro ezberdinak erabil daitezen laguntzea, ondoko jarduera hauen bidez: ipuin kontalariak, txotxongiloak, pailazoak, antzerkia, herri kirolak eta lantegiak. Programa hori ondokoentzat da: A, B eta D hizkuntza ereduak ematen dituzten Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko eta pribatuetako ikasleentzat, eta A hizkuntza ereduko Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat.

Ikastetxeek eskaera-orri bat bete behar dute, non zehaztuko duten zein den egin nahi duten jarduera, zeinentzat den, nor den jardueraren ardura

izanen duen irakaslea eta zein den jarduera horren aurrekontua. Ikastetxeek hautatzen duten jarduera hori artista batek edo talde artistiko profesional batek eginen du, ikastetxekoa ez dena, eta euskara-gaitasun nahikoa duena.

Ikastetxeak hautatutako taldeak, jarduera egin baino lehen, irakasleei bidaliko die jarduerari lotutako ikasmateriala. Ondoren, ardura duen irakasleak txosten bat igorriko dio Zerbitzuari, non zehaztuko duen zein izan den jardueraren garapena eta horren balorazioa, bai eta erabilitako publizitatebideak ere, baldin badaude.

2007. urterako, urtarrilaren 17ko 19/2007 Ebazpenaren bidez egin zen deialdia, eta ebatzi zen martxoaren 9ko 232/2007 Ebazpenaren bidez, ikastetxe publikoentzat; eta, ikastetxe pribatuentzat, urtarrilaren 17ko 18/2007 Ebazpenaren bidez egin zen deialdia, eta ebatzi zen martxoaren 22ko 305/2007 Ebazpenaren bidez.

Kostua 44.211,24 eurokoa izan zen, eta 111 saio egin ziren, non, guztira, 45 talde artistikok eta 15.337 ikaslek hartu zuten parte.

2008. urterako 178 saio onartu dira guztira, 52.124 euroko aurrekontuarekin. Egingen diren jardueren azken datuak ekitaldiaren amaieran eza gutuko dira.

Ondokoa izan da jarduera horietara bideratutako aurrekontua, 2005etik 2008ra bitarte:

URTEA	JARDUERA-KOPURUA	AURREKONTUA
2005	104	31.631,05
2006	127	39.855,66
2007	111	44.211,24
2008	178	52.124,00

Programa hori sartzen da ikasleen artean hizkuntzaren erabilera eta sendotzea sustatzeko programetan. Hona bere jarduera osagarriak:

Euskal idazleak eskolan.

Kontu kontari: ipuin kontalariak landa-eskoletan.

Hizkera arrunta DBHko ikasleentzat.

Solaskideak DBHn eta Batxilergoan.

Bertsolaritza eskolan. Bertsolaritza eskolak.

Eskola lehiaketak: literatura, deklamazioa, etnografia eta bertsoak.

Egonaldiak eta udalekuak.

Haurren antzerkia eta gazteen antzerkiaren topaketak.

Hitzaldi zientifikoak eta antropologia eta etnografiari buruzko hitzaldiak.

Haur Kantu Jaialdiak: haur eta gazteen kantak euskaraz.

Iruñean, 2008ko apirilaren 2an

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

## **Galdera, jakiteko ba al dagoen Hezkuntza Departamentuak lagunduriko eskola-aldizkari bat euskaraz.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko ba al dagoen Hezkuntza Departamentuak lagunduriko eskola-aldizkari bat euskaraz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko martxoaren 14ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Hezkuntza Departamentua, Eskolako Hezkuntza Plangintzaren Zerbitzuaren bidez, eskola-aldizkari bat sustatzen ari da, non agertuko diren eskoletan erabiltzen eta ikasten diren hizkuntza guztiak. Ekimen horren helburua da, besteak beste:

- Hizkuntzen erabilera idatzia sustatu
- Hizkuntzen ezagutzaren balorazio positiboa sustatu
- Munduan dauden hizkuntzen ezagutza sustatu
- Hezkuntza idatziaren bidez hezkuntza eta balioak sustatu
- Nafarroako beste ikastetxe batzuetako ikasle- ezagutza sustatu
- Hizkuntzen alderdi kulturalen ezagutza sustatu

Aldizkari horren lehen alea hemendik gutxira izanen da ikastetxeetan eta Hezkuntza Departamentuaren web orrian.

Iruñean, 2008ko apirilaren 2an

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

## **Galdera, jakiteko Hezkuntza Departamentua prest al dagoen berriro aztertzeko Hizkuntza Eskola Ofizialeko iraileko azterketen deialdia berrezartzea.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du jakiteko Hezkuntza Departamentua prest al dagoen berriro aztertzeko Hizkuntza Eskola Ofizialeko iraileko azterketen deialdia berrezartzea.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko martxoaren 7ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Uztailaren 4ko 88/2007 Foru Aginduak –horren bidez antolatzen dira martxoaren 19ko 22/2007 Foru Dekretuaren bidez araututako araubide bereziko hizkuntza irakaskuntzen oinarrizko eta erdiko mailak– deialdi bakarra ezartzen du erdiko mailaren ziurtapena lortzeko.

Foru Agindu hori ikasleak matrikulatu ostean argitaratu zenez, Hezkuntza Departamentuak erabaki du deialdi bakarrari buruz gogoeta egitea eta 2008ko iraileko deialdia mantentzea.

Iruñean, 2008ko apirilaren 2an

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

## **Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer asmo duen Rozalejo Jauregiari dagokionez.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko Nafarroako Gobernuak zer asmo duen Rozalejo Jauregiari dagokionez.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko martxoaren 7ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko zer asmo duen Nafarroako Gobernuak Rozalejo Jauregiari dagokionez. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Turismorako Plan Estrategikoaren esparruan, plan horren egileek proposatu zuten Nafarroako Ostalaritza Ikasketen Zentroa sendotzea.

Zentro hori Rozalejoko Markesaren Jauregian kokatzeko aukera aztertu zen, eta horrek eskatzen zuen eraikina bere osotasunean birgaitzea. Proiektua bideragarria zela ikusirik, Iruñeko Udalak, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberak –horren kide da Nafarroako Ostalaritzako Enpresaburuen Elkarteak– adostu zuten elkarrekin sustatuko zutela zentroa eraikin horretan kokatzea, ondoko helburuekin: Alde Zaharrari hezkuntza ekipamendu berria ematea, eraikin hori berreskuratzea eta birgaitzea, eta ostalaritzaren alorrean prestakuntza integrala eta kalitatezkoa eskaintzea. Gero, Ostalaritzako Enpresaburuen Elkarteak berriz hausnartu zuen proiektu horretan parte hartzeari buruz, eta azkenik, erabaki zuen proiektuari formalki uko egitea. Hortaz, Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak bertan behera utzi zuten plan hori.

Gaur egun, Nafarroako Gobernua higiezin plan bat egiten ari da, eta horren helburua da Gobernuaren ondasunen inbentario bat egitea. Plan hori inbentarioa egiteko fasean dago. Plana amaitzen ez den arte ez zaio azken xederik ematen eraikinari.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko apirilaren 3an

Kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

---

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak Baluarteke fatxadan errotulazioa ele bitan jartzeko eginiko urratsei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak Baluarteke fatxadan errotulazioa ele bitan jartzeko eginiko urratsei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko martxoaren 14ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko apirilaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak Baluarteke fatxadan errotulazioa ele bitan jartzeko eginiko urratsekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

1. Baluarteke Administrazio Kontseiluak badaki Parlamentuaren borondatea dela Nafarroako Biltzar Jauregi eta Auditorioko fatxada ele bitan errotulazioa.

2. Nafarroako Gobernuak, lehendakariaren agintepean Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren politika orokorra ezarri eta gidatzen duen kide anitzeko organoa den aldetik, ez du zuzemenik egin Baluarteke fatxada nagusian gaztelania nahiz euskara ager daitezen.

3. Auzi hori Baluarteke Administrazio Kontseiluak landu zuen 2006ko maiatzaren 16an izandako bilkuran. Gai zerrendaren bigarren puntua izan zen, eta hartutako erabakia ondokoa izan zen:

“Kontseiluak aho batez erabaki du mahai gainean uztea eraikinaren errotulazioa euskaraz jartzeari buruzko auzia.”

Iruñean, 2008ko apirilaren 8an

Kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

---



## **Galdera, Nafarroako Elkartearen Erregistroan erregistraturik dauden irabazi asmorik gabeko, interes publikoko edo onura publikoko entitate eta/edo elkarteei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

María Chivite Navascués andreak galdera egin du Nafarroako Elkartearen Erregistroan erregistraturik dauden irabazi asmorik gabeko, interes publikoko edo onura publikoko entitate eta/edo elkarteei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko martxoaren 14ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Chivite Navascués andreak galdera egin du Nafarroako Elkartearen Erregistroarekin zerikusia duten zenbait gai buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako Elkartearen Erregistroan erregistraturik dauden irabazi asmorik gabeko entitate eta/edo elkarteei dagokienez, lehenik eta behin adierazi behar da Nafarroako Foru Komunitateko Elkartearen Erregistroan erregistraturik dauden elkarte guztiak irabazi asmorik gabekoak direla.

Izan ere, elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoak ezartzen du bere aplikazio esparruan egonen direla irabazi asmorik gabeko elkarte guztiak eta elkarte-araubide zehatz baten menpe ez daudenak (1.2. artikulua).

Zehazki, 6.262 elkarte daude erregistratuak Elkartearen Erregistroan, 2008ko apirilaren 8an, eta alfabetikoki jaso ditugu idazki honen I. eranskinean (5.624) eta II.ean (638); orokorrak eta gazte elkarteak, hurrenez hurren.

2.- Nafarroako Elkartearen Erregistroan interes publikoko edo onura publikoko elkarte edo entitate gisa 20 elkarte edo/eta entitate daude erregistratuta, eta III. eranskinean jaso dira.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikulua eta hurrengoak betetzeko.

Iruñean, 2008ko apirilaren 10ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

(Oharra: aipatutako eranskina foru parlamentarien eskura dago 7-07/PES-00093 espedientean, ondoko web helbidean hain zuzen:

<http://actividad.parlamento-navarra.es:8080/AgoraWeb/>)

## **Galdera, Belateko mendatean konifero-espezieen landatze esperimentalari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Belateko mendatean konifero-espezieen landatze esperimentalari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko martxoaren 28ko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Angel Agirrebengoa jaunak galdera egin du Baztanen espezie koniferoak landatzeari buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Lehenik eta behin, beharrezkoa da argitzea galderaren azalpenarekin zerikusia duten zenbait auzi garrantzitsu:

1. Galderan aipatzen den lur-sailean landatuta dagoen espeziea *Chamaecyparis lawsoniana* deiturikoa da. Konifero aloktono bat da, eta *Lawson* altzifre izen arruntaz ezagutzen da. Lur-sail horretan bost unada bereiz daitezke eta horiek 7 hektarea baino zertxobait handiagoa den azalera betetzen dute.

2. Unada horietako batzuk landatzeko adina 30 urtekoa da, eta 41 urtekoa beste batzuentzat.

3. Lur-sail hori Baztango Udalaren jabetzakoa da. Nafarroako Gobernuak izan duen esku-hartze bakarra izan da legezko betebeharra betetzea, alegia, administrazio baimena ematea birpopulaketarako baso-ekintzak egite aldera.

4. Zuhaitzak Baztango Udalak landatu zituen, eta Nafarroako Gobernuak diruz lagundu zuen landaketa hori, 1.954. urtean zeuden oinarri arautzaileei jarraikiz. Oinarri horien arabera, foru administrazioa arduratzen zen gastuak ordaintzeaz. Udalek gastu horiek itzultzen zizkieten Gobernuari, lur-sailaren aprobetxamendutik lortutako diruarreren %30 ordainduz, harik eta zorra kitatzen zuten arte. Ordaintzeke zeuden zorrak barkatu dira 3/2007 Foru Legearen bidez, zeinak aldatu

zuen Nafarroako Oihan Ondarea Babestu eta Garatzeari buruzko 13/1990 Foru Legea.

Hortaz, lur-sail hori ez da Nafarroako Gobernuaren jabetzakoa, ezta haren menpekoea ere; Nafarroako Gobernuak ez du oihan jarduerarik egin bertan, ez zuzenean, ez eta kontratu edo aginduen bitartez ere.

5. Galderan aipaturiko oihan eta bakantze lanak ondokoak izan dira: 2 metroko altuerako bakantzea eta inaustea egin zaie unada gazteeni, 2.002. urtean ziurtatu zirenei. Bakantzea da menderatutako oinak moztea –zuhaitz berriak atera daitezken–, baina horiek merkataritzarako erabili gabe. Hori horrela, normala da moztutako oinak in situ geratzea. Lan horiek diruz lagundu ziren, baso lanentzako laguntzen kanpainaren bidez. Kanpaina hori urtero sustatzen du Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak, eta lan horiek egiteko ardura duena da lur-sailaren jabetza duen toki entitatea; kasu honetan, Baztango Udala. Lanak behar bezala egin ziren; hala ziurtatu zen, eta lan horiei zegokien dirulaguntza ordaindu zen.

6. Bigarren jarduera bat izan da unada zaharragoak bakantzea. Baso aprobetxamendu hori arautzen du dagokion administrazio espedienteak, aipaturiko 13/1990 Foru Lege horren arabera. Aprobetxamendu guztiekin gertatzen den moduan, baldintza-orri tekniko batek arautzen du aprobetxamendu hori. Bakantze lan horren akta 2004. urtean sinatu zen, erabaki zenean unadaren azken egoera egokia zela eta ez zela ezberdintzen gainerako zur aprobetxamenduetatik.

7. Badira haizearen eraginez puskatu diren zuhaitzak; baina horien bolumen eskasak, batetik, eta zura luzera ezberdinetan moztuta egoteak, bestetik, mugatzen du zur hori merkataritzarako erabiltzea. Hori horrela, Baztango Udalak ez ditu saldu produktu horiek.

Suteak pizteko dagoen arrisku "handiari" dago-kionez, nahiz eta inausketa eta bakantze lanen ondorioz baso-hondakinak dauden, hondakin horiek azkar usteldu ohi dira, Belaten normalean nagusi diren baldintza meteorologikoak direla-eta. *Lawson* altzifrearen unadak bereizten dituen ezau-garria da beren dentsitatea; izan ere, zuhaitz horien itzala dela-eta, beste edozein motatako landa-redirik ezin da hazi bertan. Beraz, sute bat pizteko beharrezkoa den erregaia mugatzen da bakantze

lanen ondorioz sortutako baso-hondakin horietara, eta horiek, usteltze-egoeran daudenez, hezetasun-maila handia dute. Hori horrela, uste dugu Belaten bertan kokatutako beste erregai batzuekin alderatuta, sute bat pizteko dagoen arriskua oso txikia dela.

8. Beraz, Landa Garapeneko eta Ingurumene-ko Departamentuak ez du erantzukizunik sute bat pizteko arriskuari dagokionez; izan ere, dagoeneko adierazi denez, lehen erantzulea lur-sailaren jabea eta oihan jardueren sustatzailea izanen litzateke; kasu honetan, Baztango Udala.

Agirrebengoa jaunak egindako galdera zehatzei dagokionez, hona erantzuna:

a).- Landa Garapeneko eta Ingurumene-ko Departamentuak jakin badaki Baztango Udalak egindako aprobetxamenduak eta oihan lanak direla-eta, baso-hondakinak daudela (adaxkak, mogarrak, enborren bat eta abar); baina hondakin kopuru hori ez da beste zuhaitz mozketak batzuetan sortutakoa baino handiagoa, zuhaitz horiek espezie koniferoak nahiz hostotsuak izan.

b).- Departamentuak bere oniritzia eman die hala oihan jarduerari –baso-lanentzako laguntzen kanpainen bidez eginak eta diruz lagunduak, eta horiei zegokien obra-zuzendaritzaren bidez ziurtatuak–, nola merkataritzarako zur aprobetxamenduari –hori udalak esleitu zuen, eta 4 luzapen izan ditu, esleipen-hartzaileak hala eskatuta (633/00 espedientea)–. Oniritzi hori administrazio egintza banatan islatu da.

c).- Zuhaitz mozketetan sortutako baso-hondakin kopurua ez denez beste baso aprobetxamendu batzuetakoa baino handiagoa, eta eremu hori ez

denez arriskutsutzat jotzen suteei dagokionez, ez da agindurik eman baso-hondakinak bertatik kentzeko. Ekintza hori planteatzea liteke klimatologia lehorragoa duten beste eremu batzuetan (Nafarroako erdialdean, esaterako) edo arraseko mozketetan, non zuhaitz guztiak desagertzen diren, helburua baita lurra garbitzea zuhaitz berriak landatze alde-  
ra.

d).- Orain arte egindako jarduerak egokiak izan dira. Epe laburrera beste zuhaitz mozketak bat planteatu beharko da, zuhaitziaren dentsitatea murrizteko eta haizeak puskatutako zuhaitzak kentzeko, oin onenen mesedetan.

e).- Berrito ere azpimarratzen da jarduteko modu hori dela aprobetxamendu mota horietan jarraitu ohi dena. Zura egiteko moduak bakarrik baldintzatzen du hondakin kopurua bazterretan pilatzea edo zoko guztietatik barreiatzea. Normalean, zuhaitz mozketetan sortutako baso-hondakinak nahiko azkar usteldu ohi dira, eta oso une puntualetan bakarrik izan litezke pizgarri bat balizko suterik egonen balitz. Belateko kasu zehatzean, ez dakigu suteek eragina izan ote duten aipatutako masa horietan. Hala ere, mendiaren titularrak edozein unetan egin ditzake baso-hondakinak kentzeko lanak, edozein arrazoi dela medio –suteak pizteko arriskua, estetika eta abar– egokitzen jotzen badu.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko apirilaren 11n

Landa Garapeneko eta Ingurumene-ko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

## Galdera, Nafarroako Turismo Kontseiluari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Román Felones Morrás jaunak galdera egin du Nafarroako Turismo Kontseiluari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko martxoaren 28ko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak galdera egin du Nafarroako Turismo Kontseiluarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

1. Kontseiluak zein egunetan hasi zituen jarduerak, arestian aipatutako foru dekretua garatu ondotik.

2004ko azaroaren 10ean.

2. 2008ra bitarte kontseiluko kide izan diren pertsona eta erakundeen zerrenda.

Lehendakaria:

Juan Ramón Corpas Mauleón jauna, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria.

Lehendakariordeak:

Cristina Arcaya Sánchez andrea, Turismorako eta Turismoaren Sustapenerako zuzendari nagusia.

Carlos Erce Eguaras jauna, Turismo zuzendari nagusia.

Kideak:

Miren Ausín Lecuna andrea, Turismoaren Sustapenerako eta Irudi Turistikorako zerbitziburua.

Nazareth Yábar Martínez andrea, Turismoaren Sektorea Sustatu eta Antolatzeke zerbitziburua.

Carmen Oroz Iribarren andrea, Marketin Turistikoko zerbitziburua.

Fermín Villanueva Ferreras jauna, Turismoko Produktuak Garatu eta Antolatzeke zerbitziburua.

– Turismo partzuergoak:

José María Aierdi Fernández de Barrena jauna (Plazaola Turismo Partzuergoa).

M<sup>a</sup> Carmen Ochoa Canela andrea (Erdialdearen Garapenerako Partzuergoa).

Andres Etxenike Iriarte jauna (Bertizko Turismo Partzuergoa).

Antonio Barbarin Garísoain jauna (Lizarraldeko Turismo Partzuergoa).

Carmen Ferrer Cajal andrea (Eder Partzuergoa).

José Luis Cía Urrutia jauna (Nafarroako Pirinioko Turismo Partzuergoa).

José Ángel Cambra Burgaleta jauna (Nafarroako Pirinioko Turismo Partzuergoa).

– Ostalaritzako enpresaburuen elkarteak:

Juan María Idoate Vidaurre jauna (Nafarroako Ostalaritzako Enpresaburuen Elkarte (AEHN)).

José Ignacio Calvo Pérez jauna (Nafarroako Ostalaritzako Enpresaburuen Elkarte (AEHN)).

Marisol Casado Ayape andrea (Nafarroako Ostalaritzako Enpresa Txikien Elkarte (ANAPHE)).

José Luis Sánchez Gallipienzo jauna (Nafarroako Ostalaritzako Enpresa Txikien Elkarte (ANAPHE)).

– Hotelak:

José Luis Armendáriz Sáiz jauna (Iruñeko Hotelen Elkarte).

Alfredo Elizalde Pérez de Ciriza jauna (Iruñeko Hotelen Elkarte).

Javier Asirón Irurzun jauna (Iruñeko Hotelen Elkarte).

Juan Luis Barber Narvaiz jauna (Iruñeko Hotelen Elkarte).

Marcos Daspa jauna (Iruñeko Hotelen Elkarte).

– Landa-hotelak:

Yolanda Anaut Bernat andrea (Nafarroako Landa Hotelen Elkarte).

Jesús Rebollo García jauna (Nafarroako Landa Hotelen Elkarte).

## – Landetxeak:

Sagrario Goñi Michelena andrea (Hiruak-Bat Landetxeen Elkarte).

Pablo Mendiburu Etxeberria jauna (Hiruak-Bat Landetxeen Elkarte).

Juan José Arruiz Barrado jauna (Hiruak-Bat Landetxeen Elkarte).

Izaskun Goñi Razquin andrea (Hiruak-Bat Landetxeen Elkarte).

## – Kanpaleku turistikoak:

Ana Beriáin Apesteguía andrea (Nafarroako Kanpalekuen Elkarte).

José Félix Martínez Choperena jauna (Nafarroako Kanpalekuen Elkarte).

## – Jatetxeak:

Alejandro Múgica Zabaleta jauna (Nafarroako Jatetxeen Elkarte).

Juan Campos Irazu jauna (Nafarroako Jatetxeen Elkarte).

## – Aterpetxeak:

Unai Yarza Salaberría jauna (Lagun Artea Aterpetxeen Elkarte).

Raúl Jesús Pilar Garcés jauna (Lagun Artea Aterpetxeen Elkarte).

M<sup>e</sup> Jesús Rey Bacaicoa andrea (Lagun Artea Aterpetxeen Elkarte).

## – Bidaia-agentziak:

Juan Ignacio Patús Quel jauna (Nafarroako Bidaia Agentzien Elkarte (ANAVI)).

José Miguel Huarte Goñi jauna (Nafarroako Bidaia Agentzien Elkarte (ANAVI)).

Ernesto Kahle Olaso jauna (Nafarroako Bidaia Agentzien Elkarte (ANAVI)).

## Apartamentu turistikoak:

Elsa Tapia Legaria andrea (Erronkari-Zaraitzu Apartamentu Turistikoaren eta Ostaluen Elkarte).

Elena Conget Oyaga andrea (Erronkari-Zaraitzu Apartamentu Turistikoaren eta Ostaluen Elkarte).

Maritxu Mantxo Laiana andrea (Nafarroako Pirinioko Landetxeen Elkarte).

Julia Tainta Esquíroz andrea (Nafarroako Pirinioko Landetxeen Elkarte).

## – Biltzarrak antolatzeko elkarte profesionalak:

María Dolores Vicente Alzuaz andrea (Biltzarrak Antolatzen dituzten Enpresa Profesionalen Nafarroako Elkarte (OPC)).

José María Negro López jauna (Biltzarrak Antolatzen dituzten Enpresa Profesionalen Nafarroako Elkarte (OPC)).

## – Jardueren enpresak:

Mikel Olo Garde jauna (BIDEAK Nafarroako Jarduera Turistikoetarako Enpresen Elkarte).

Agustín Errazti Ibarra jauna (BIDEAK Nafarroako Jarduera Turistikoetarako Enpresen Elkarte).

## – Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofiziala:

Rafael Moreno Arocena jauna.

Javier Taberna Jiménez jauna.

## – Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa:

Amaya Otamendi Claramunt andrea (Iruñeko Udala).

Antonio Barbarin Garísoain jauna (Arroitzeko alkatea).

Francisco Pérez Arregui jauna (Ultzamako alkatea).

Mikel Javier Recalde Goldáraz jauna (Beteluko alkatea).

## – Ostalaritzako sindikatua:

Alicia Sanz Pascal andrea (Unión General de Trabajadores).

M<sup>e</sup> Asunción Apesteguía Jaurrieta andrea (Unión General de Trabajadores).

José Luis Marín Garmendia jauna (Unión General de Trabajadores).

## – Pamplona Convention Bureau:

Elena Sanz Velasco andrea.

Carmen María Rojo San Román andrea.

## Idazkaria:

José Miguel Gamboa Baztán jauna, Antolaketa Ataleko burua.

3. Egindako Osoko Bilkuren zerrenda eta egunak. Jorrotutako gaiak. Kontseilariaren ekimenez eginiko deialdiak eta Kontseiluko kideen ekimenez eginikoak.

## – Honako egun hauetan egin dira Osoko Biltzurak:

2004ko azaroaren 10ean (Kontseiluaren eraketa; Departamentuaren aurkezpena; urtean zehar

egindako ekintzarik esanguratsuenak; 2005. urterako aurrekontuen aurreproiektua; kide bat hautatzea Lurralde Politikarako Gizarte Kontseilurako; galderak eta eskaerak).

2005eko irailaren 20an (akta irakurri eta onestea; kontseilariaren txostena; Turismo Zuzendaritza Nagusiaren eta Zerbitzuen Zuzendaritzaren txostena; departamentuaren txostena; galdera eta proposamenak).

2005eko abenduaren 27an (akta irakurri eta onestea; kontseilariaren txostena; Turismo Zuzendaritza Nagusiaren eta Zerbitzuen Zuzendaritzaren txostena; galdera eta proposamenak).

2006ko maiatzaren 9an (akta irakurri eta onestea; kontseilariaren txostena; Turismo Zuzendaritza Nagusiaren eta Zerbitzuen Zuzendaritzaren txostena; Nafarroako Turismoaren II. Jaialdia; Nafarroako Turismo Sariak emateko proposamenak; galderak eta eskaerak).

2006ko irailaren 27an (akta irakurri eta onestea; kontseilariaren esku-hartzea; estatistika eta adierazle turistikoak; turismoa sustatzeko alorrean egindako jardueren txostena; hurrengo hilabeteetarako aurreikuspenak).

2007ko otsailaren 21ean (akta irakurri eta onestea; kontseilariaren txostena; "Nafarroako Erresuma" Turismo Sariak; Turismo Zuzendaritza Nagusiaren eta Zerbitzuen Zuzendaritzaren txostena; hurrengo hilabeteetarako aurreikuspenak; galderak eta eskaerak).

2007ko ekainaren 6an (akta irakurri eta onestea).

2008ko otsailaren 26an (kontseilariaren txostena; Nafarroan 2007an izandako turismoaren balantzea; legegintzaldiaren programa; 2008ko ekitaldirako aurrekontua; 2008ko deialdiak; "Nafarroako Erresuma" Turismo Sariak; galderak eta eskaerak).

– Honekin batera doaz egindako bilera bakoi-tzean jorratutako gaiak.

– Orain arte egin diren Osoko Bilkura guztieta-rako deia lehendakariak egin du. Ez da beste ekimenik izan.

4. Lehendakariak Kontseiluaren bileretan parte har dezaten gonbidatu dituen entitate, aditu edo teknikarien zerrenda, zergatik gonbidatu dituen eta zer gai jorratu dituzten.

Ez da halakorik gertatu.

5. Kontseiluko kideek sustatuta Osoko Bilkurak aztertutako ekimenak, eta ekimen horiek onetsi diren ala ez.

Zenbait ekimen egin dira dirulaguntza-deialdiei buruz, eta zenbait ekintza sustapenaren eta marketinaren alorrean.

Halaber, adierazpen instituzionalak proposatu dira.

Hori horrela, 2006ko irailaren 27an adierazpen bat onartu zen turismoaren bilakaerari buruz. Honela zioen:

Nafarroako Turismo Kontseiluak aztertu du turismoak Nafarroan izan duen bilakaera, eta hau da bere iritzia: 2006. urtea amaitu bitartean –ordu-antxe egin ahal izanen baita behin betiko balantzea–, turismo adierazleek erakusten dute sektorearen gozko joerak jarraitzen duela.

Halaber, ekipamendu turistiko ezberdinetan jasotako datuek ere baieztatzen dute bisitarien kopurua handituz doala, bereziki udako hilabeteetan, eta, azken finean, turismoa hazten ari dela.

Kontseiluak adierazten du Nafarroako Komunitateko turismoak duen hazkunderako joera horri laguntzen dion alderdietako bat dela, besteak beste, turismo-sektoreko eragile guztiek egiten duten lana. Sektore hori, aldi berean, aberasten eta sustatzen ari da administrazio publikoen eta sektore pribatuaren artean dagoen adostasun, parte-hartze eta lankidetzari esker.

Ildo horretatik, Nafarroako Turismo Kontseiluak uste du egokia dela babestea Nafarroako Gobernuak turismoa garatu eta sustatzeko asmoz aurrera eramaten dituen jarduerak. Jarduera horiek, sektore osoaren lanarekin eta laguntzarekin batera, bide eman dute Komunitate osoan aurrerapen nabarmena eta onuragarria izateko.

Halaber, Kontseiluak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio datozen urteotan bere ahaleginak indar ditzan aurrekontuen alorrean, Komunitateko turismoari behar bezalako bultzada emate aldera.

2008ko otsailaren 26an izandako bilkuran, beste adierazpen bat onetsi zen nazio mailako turismo planetan parte hartzeari buruz. Ondokoa adierazi zen:

Nafarroako Turismo Kontseiluak aztertu du 2020. urterako Espainiako Turismo Planetik eratorritako estrategia turistiko nazional berria. Plan hori turismo arloko batzarrean onetsi zen 2007ko azaroaren 7an, eta Ministro Kontseiluak hurrengo egunean onetsi zuen. Halaber, Kontseiluak badaki zein diren aipaturiko plan horren lehen garapen-programen oinarriak; programa horiek estrategia berria dira, turismo-sektore lehiakorrago eta gara-tuago bat izateko.

Halaber, Kontseiluak Nafarroaren egoera ere hausnartu du, izan ere iraganean ezin izan zuen programa batzuetan parte hartu, eta adierazi du sektore publikoaren eta pribatuaren nahia dela haien ahaleginak batzea eta nazio mailako estrategiarekin bat etorriko den estrategia global bat garatzea.

Zehazki, Kontseiluko kideek ondoko planak aipatu dituzte: turismoa dinamizatzeko planak (Nafarroan ez dute izan turismo administrazio nazionalaren babes ekonomikoa eta teknikorik, eta administrazio hori gabe eraman dira aurrera), helmuga eta produktu turistikoetarako kalitate planak (hein batean ez dute laguntza ekonomikorik jaso) eta FOMIT funtsak (Nafarroari ekitaldi batean aplikatu zitzaizkion, eta hurrengo ekitaldian kendu).

Kontseiluko kideek positibotzat eta beharrezkotzat jo dute ahaleginak eta metodologiak batzea eta ikuspegi estrategiko eta operatibo bera aplikatzea turismoa garatze aldera.

Hau dena kontutan hartuz, aho batez erabakitzen dute:

1.- Nazio mailako estrategia turistiko berria babestea –2020. urterako Turismo Planean islatzen dena–, eta haren programa operatiboak ere bai.

2.- Esparru Plana eta 0812 Plana ezartzeko prozesu osoan laguntzeko eta elkarlanean aritzeko borondatea eta nahia adieraztea.

3.- Merkataritza eta Turismorako Estatu Idazkaritzari, Turismo Idazkaritza Nagusiari eta Turespañari eskaria egitea Nafarroa erabat sar dadin programa operatibo ezberdinetan; benetako parte-hartze tekniko eta metodologikorako formula bilatuz, zeinak ez duen berarekin ekarriko Foru Komunitateko administrazioak Espainiako Gobernuari ordaindu behar izatea, horretarako aukerarik ez dagoenean.

4.- Nazio mailako organo turistikoei adieraztea Nafarroa ahalegin handia egiten ari dela helmuga turistiko gisa hobetze aldera, eta ahalegin horretan, sektore publikoan eta pribatuan diharduela estuki eta elkarlan giroan, marketin eta garapen planen bidez.

5.- Adieraztea, halaber, Nafarroako Turismo Kontseilua ziur dagoela Foru Komunitateak ahalmen turistiko handia duela, eta Nafarroak balio turistiko handiko aukerak eta baliabideak dituela, bereziki garrantzitsuak direnak produktuak eta helmugak garatzeko strategiari dagokionez, horiek ondoko prisma hauetatik landuz: hautemandako kalitatea, esperientzia paregabeak, berrikuntza,

lehiakortasuna, desestazionalizazioa eta gizarte eta lurralde arloko oreka berreskuratzea.

6.- Administrazio zentralari erabaki hau eta ondoko konpromisoa helaraztea: Nafarroako sektore osoak bere ezagutza, esperientzia eta lanarekin lagunduko dio Espainiako turismoa globalki modernizatzeko prozesuari.

6. Aipatu dekretuko 2.e) artikuluan ezarritakoari jarraikiz eginiko aldizkako txostenak.

Nahiz eta Kontseiluak berak ez duen txostenik idatzi, egindako Osoko Bilkuretan aurkeztu dira Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko arduradunek egindako txostenak, non datuak jasotzen ziren Nafarroako turismo-sektorearen egoerari eta bilakaerari buruz. Kideei dokumentazio zehatza eman zaie.

7. Abian jarritako batzordeen zerrenda. Batzordeak osatu dituzten pertsona edo instituzioen zerrenda. Egindako bileren zerrenda eta egunak. Jorratutako gaiak.

Orain arte, Kontseiluari ez zaio beharrezkoa iruditu lan batzorderik abian jartzea.

8. Kontseilua sortu zuen foru dekretuan ezarritakoaren kariatara Kontseiluak egindako jarduketan balantze orokorra.

Orain arte egindako jarduketei dagokienez, beharrezkoa da ondoko alderdi hauek nabarmentzea:

a) Kontseiluak behar bezala bete ditu esleitu zitzaizkion eginkizunak. Foro horrek aukera eman die bere kideei eta, hedaduraz, sektoreari, parte har zezaten eta azter zitzaten –informazio zehatzarekin– turismo alorreko proposamenak, zereginak eta jarduketak.

b) Halaber, organo horrek aukera eman du hura osatzen duten sektoreen artean, iritzi eta proposamenei dagokienez, hartu-eman arina eta norabide anitzekoa egon dadin, eta arreta berezia jarri du administrazioan eta gainerako kideetan.

c) Bere funtzionamendua aztertu ostean, egiztatzen da lanerako, azterketarako eta aholkularitzarako foro baten aurrean gaudela, zeinak aukera eman duen hainbatetan adostasun batera heltzeko –beste alor batzuetan hain zaila dena–. Adostasun hori ondokoetan oinarritzen da: kide ezberdinek beren sektoreetan egiten dituzten zereginak aintzat hartzea eta ulertzea, eta onartzea kide guztiek xede komuna dutela; hots, gure Komunitateko turismoaren garapen on bat lortzea.

Hori guztia dela-eta, egokitzat jo daiteke organoaren jarduketaren balantze orokorra, eta era

berean adierazi behar da ezin dela konformismoan erori, baizik eta sakontzen jarraitu behar dela organismo horren helburu diren zeregin eta xedeetan.

9. Kontseilua sortu zuen foru dekretuan ezarritako helburuak lortzerakoan atzemandako gabeziak.

Ez da gabeziarik atzeman. Etorkizunean, aurreikus daiteke zenbait gai lantzeko batzorde zehatz bat eratzea, zeinak funtzionamendu arin eta malgua izanen duen, bai eta helburu, osagai eta epe zehatz batzuk ere.

10. Kontseiluaren osaera eta eginkizunei dagoen aurreikusitako aldaketak.

Zenbait proposamen aztertzen ari dira. Epe laburrera ez dago aurreikusita aldaketarik egitea, nahiz eta kontuan izan behar den, turismoaren dinamika handia dela medio, osaera alda litekeela, sor litezkeen egoera berrietara moldatzeko.

Iruñean, 2008ko apirilaren 11n

Kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

## **Galdera, Nafarroako Kulturaren Kontseiluak 2003-2007 epealdian eginiko jardueri buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Román Felones Morrás jaunak galdera egin du Nafarroako Kulturaren Kontseiluak 2003-2007 epealdian eginiko jardueri buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko martxoaren 28ko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak galdera egin du Nafarroako Kultura Kontseiluarekin zerikusia duten zenbait gaiari buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

1. Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legearen 10.3. artikuluan xedatutakoarekin bat, Kultura Kontseiluko kide berezko dira departamentu eskuduneko kontseilari titularra, kontseiluko burua izanen baita, eta departamentu horretan kultur arloko eskumenak dituzten zuzendaritza nagusietako titularrak.

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren abenduaren 29ko 263/2003 Foru Aginduaren bidez, ondokoak

izendatu ziren VII. Nafarroako Kultura Kontseiluko kide:

Miguel Angel Alonso del Val jauna

María Jesús Artaiz Zabalza andrea

Salud Bueno Granados andrea

Ángel De Miguel Martínez jauna

Emilio Echavarren Urtasun jauna

Ricardo Fernández Gracia jauna

Iñaki Gordejuela Hierro jauna

Julio Gorricho Moreno jauna

Manuel Hidalgo Ruiz jauna

Koldo Lasa Aristu jauna

Joaquín Llansó San Juan jauna

Pedro Manterola Armisén jauna

Ángel Martín Duque jauna

Francisco Miranda Rubio jauna

Ana Moreno Lecumberri andrea

Manuel Motilva Albericia jauna

José Luis Ramírez Sádaba jauna

Koldo Sebastián Del Cerro jauna

Fernando Tabuenca González jauna

Ana Zabalegui Reclusa andrea



Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariak apirilaren 22an emandako 57/2005 Foru Aginduaren bidez, aldatu zen VII. Nafarroako Kultura Kontseiluaren osaera. Ondoko hauek izendatu ziren kide:

Juan José Aquerreta Maestu jauna eta Pedro Lozano Bartolozzi jauna, ondoko hauen ordeiz: Manuel Hidalgo Ruiz jauna eta Miguel Alonso del Val jauna.

**2.** Laurteko honetan zehar, ondoko Osoko Bilkurak egin dira, horiek guztiak Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren ekimenez:

– 2004ko martxoaren 2an. Deialdia otsailaren 13an egin zen eta gai-zerrenda ondoko hau izan zen:

1) Nafarroako Kultura Kontseiluaren Osoko Bilkura berria eratu.

2) Batzordeak eratu

3) Aurreko akta onetsi

4) 2004ko Vianako Printzea Kultura Sariaren hurrengo deialdia hausnartu

5) Eskariak eta galderak.

– 2004ko maiatzaren 21ean. Deialdia maiatzaren 6an egin zen eta gai-zerrenda ondoko hau izan zen:

1) Aurreko akta irakurri eta onestea

2) 2004ko Vianako Printzea Kultura Saria hautatzea

3) Eskariak eta galderak.

– 2004ko urriaren 8an. Deialdia irailaren 30ean egin zen eta gai-zerrenda ondoko hau izan zen:

1) Aurreko akta irakurri eta onestea

2) Kultur Ondareari buruzko Legearen txostena

3) 2005eko ekitaldirako aurrekontuen zirriborroari buruzko txostena

4) Oteiza Fundazio Museorako patroia proposatzea

5) Eskariak eta galderak.

2005eko apirilaren 29an. Deialdia apirilaren 21ean egin zen eta gai-zerrenda ondoko hau izan zen:

1) Aurreko bilerako akta irakurri eta onestea

2) Nafarroako Kultura Kontseiluko lehendakariaren txostena

3) Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Foru Legearen aurreproiektuaren txostena

4) 2005eko Vianako Printzea Kultura Saria eztabaidatu eta bozkatzea

5) Eskariak eta galderak.

– 2006ko maiatzaren 5ean. Deialdia apirilaren 27an egin zen eta gai-zerrenda ondoko hau izan zen:

1) Aurreko bilerako akta irakurri eta onestea

2) Nafarroako Kultura Kontseiluko lehendakariaren txostena

3) 2006ko Vianako Printzea Kultura Saria eztabaidatu eta bozkatzea.

4) Eskariak eta galderak.

– 2006ko urriaren 30ean. Deialdia urriaren 11n egin zen eta gai-zerrenda ondoko hau izan zen:

1) Aurreko bilerako akta irakurri eta onestea

2) Nafarroako Kultura Kontseiluko lehendakariaren txostena

3) Artxiboei eta Dokumentuei buruzko Foru Legearen aurreproiektuaren txostena.

4) Arteak bulkatzeko egitasmoari buruzko txostena.

5) Eskariak eta galderak.

**3.** Osoko Bilkuran ez zaie agerraldirik eskatu kide ez diren adituei.

**4.** 2004ko urriaren 8ko Osoko Bilkuran, Julio Gorricho jaunak honakoa proposatu zuen: Ricardo Fernández Gracia jauna Ondare Historikoaren Batzordeko kide izatera pasatzea. Proposamena onetsi zen, eta Ricardo Fernández jauna Batzorde horretako idazkari izendatu zen. Julio Gorricho jaunak proposatu zuen Nafarroan zeuden Don Kixoteren edizioen erakusketa bat egitea.

2006ko maiatzaren 5eko Osoko Bilkuran, Ricardo Fernández Gracia jaunak honakoa planteatu zuen: Artxibo eta Liburutegien Batzordetik atera nahi zuen, Ondare Historikoaren Batzordeko kide izatera igaro zelako. Pedro Lozano Bartolozzi jaunak proposatu zuen Zientzia Batzorde bat sortzea, eta lehendakariak erantzun zion hori aztertuko zela Kontseilu berria eratzen zenean.

2006ko urriaren 30eko Osoko Bilkuran, Manuel Motilva jaunak eta Kontseiluko beste kide batzuek ondokoa eskatu zuten: jarduketak hastea Kultura Ministerioak berriro hausnar zezan Tuterako katedralaren klaustroa eraberritzeko emandako dirulaguntza kentzeko erabakia. Aho batez onetsi zen.

2006ko urriaren 30eko Osoko Bilkuran, lehendakariak jakinarazi zuen Kultura Ministerioak ez zuela dirulaguntza berrituko Tuterako katedralaren klaustroa eraberritzeko.

5. Hau da batzordeak osatzen dituzten pertsonen zerrenda:

• **MUSIKA ETA ARTE ESZENIKOEN BATZORDEA**

María Jesús Artaiz (lehendakaria)

Ana Zabalegui

Ana Moreno

Salud Bueno

Iñaki Gordejuela

• **ARTE PLASTIKOAK ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK**

Miguel Angel Alonso del Val (lehendakaria)

Pedro Manterola

Koldo Lasa

Koldo Sebastián

Manuel Hidalgo

Fernando Tabuenca

• **ONDARE HISTORIKOA**

Fernando Tabuenca (lehendakaria)

Pedro Manterola

Manolo Motilva

José Luis Ramírez Sádaba

Koldo Lasa

Ricardo Fernández Gracia (2004ko urriaren 8tik)

• **ARGITALPENAK**

Angel Martín Duque (lehendakaria)

Angel de Miguel

Manuel Hidalgo

Emilio Echavarren

Ricardo Fernández

Francisco Miranda

• **ARTXIBOAK ETA LIBURUTEGIAK**

Joaquín Llansó San Juan (lehendakaria)

Julio Gorricho Moreno

Francisco Miranda Rubio

Ricardo Fernández Gracia

Angel Martín Duque

• **ARKEOLOGIKO ETA ETNOLOGIKOA**

José Luis Ramírez Sádaba (lehendakaria)

Julio Gorricho Moreno

Manolo Motilva

Miguel Angel Alonso del Val

Koldo Sebastián Del Cerro

Arte Plastikoen eta Ikus-entzunezkoen Batzordean, Juan José Aquerreta jaunak ordeztu zuen Miguel Angel Alonso jauna, eta lehendakaritza Koldo Lasa jaunaren eskuetara pasa zen, 2006ko martxoaren 20an; eta Argitalpenen Batzordean, Pedro Lozano jaunak ordeztu zuen Manuel Hidalgo jauna.

Hona egindako bileren zerrenda, batzordeen, daten eta gaien arabera:

– **Arte Plastikoen eta Ikus-entzunezkoen Batzordea**

2006ko martxoaren 20an, honako gai-zerrendarekin:

1) Lehendakari berria hautatzea. Koldo Lasa jauna hautatu zen aho batez kargu horretarako.

2) Lehendakariaren proposamena jorratu zen, alegia, 2006ko Vianako Printzea Kultura Sarirako Carlos Cánovas argazkilari nafarra aurkeztea.

– **Artxibo eta Liburutegien Batzordea**

2004ko apirilaren 1ean, honako gai-zerrendarekin:

1) Lehendakariaren agurra

2) Batzordeak aurreko legegintzaldian egin zuen lana aztertu: Kultur Ondareari buruzko Legea, Artxiboari buruzko Legea, Nafarroako Gobernuaren artxibo sistema.

3) Batzordeak egungo legegintzaldian garatu beharreko Lan Plana proposatu.

4) Lan metodologia Batzordearen baitan.

2004ko maiatzaren 7an, honako gai-zerrendarekin:

1) Aurreko bilerako akta irakurri eta, bidezkoa bada, onestea.

2) Turismorako eta Turismoaren Sustapenerako zuzendari nagusiaren txostena eta Liburutegi Zerbitzuko zuzendariarena.

3) Eskariak eta galderak.

2004ko ekainaren 25ean, honako gai-zerrendarekin:

1) Aurreko bilerako akta irakurri eta onestea.

2) Batzordeak garatu beharreko proiektuak.

3) Eskariak eta galderak.

2004ko urriaren 8an, honako gai-zerrendarekin:

1) Aurreko akta irakurri eta onestea.

2) Gobernuarentzat artxiboen alorrean interesgarriak diren proiektuak hausnartu, eta Batzordeak proiektu horietan izanen duen zeregina.

3) Eskariak eta galderak.

2004ko abenduaren 9an, honako gai-zerrendarekin:

1) Aurreko akta irakurri eta onestea.

2) Tafallako Azkona liburutegia Interes Kulturalako Ondasun aitortzeko txostena.

3) Nafarroako Administrazio Artxiboak legegintzaldi honetarako dituen proiektuak.

4) Nafarroako Artxibo Nagusiaren proiektuak.

5) Eskariak eta galderak.

2005eko martxoaren 16an, honako gai-zerrendarekin:

1) Aurreko akta irakurri eta onestea.

2) Artxiboen Zerbitzuko arduradunekin izandako bileratik ateratako ondorioen aipamena.

3) Eskariak eta galderak.

2005eko maiatzaren 18an, honako gai-zerrendarekin:

1) Aurreko akta irakurri eta onestea.

2) Kultura zuzendari nagusiari aurkeztea Artxiboen Zerbitzuko arduradunekin izandako bileratik ateratako ondorioak (aurreko bilkuran hartutako erabakiari jarraikiz).

3) Artxibo Nagusiko funtsak deskribatzeko prozesuaren egoera (aurreko bilkuran hartutako erabakiari jarraikiz).

4) Agirien ondarearen artikulua, Kultur Ondareari buruzko Legearen azken zirriborroan.

5) Artxibo eta Liburutegien Batzordearen ordezkari bat izendatzea, Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Foru Legearen zirriborroa egiteko lantaldean sar dadin.

6) Eskariak eta galderak.

2005eko azaroaren 11n, honako gai-zerrendarekin:

1) Aurreko bilerako akta irakurri eta onestea.

2) Batzordeak Artxiboei buruzko Foru Legearen lantaldeari egindako ekarpenen txostena (aktaren eranskina).

3) Eskariak eta galderak.

2005eko azaroaren 25ean, honako gai-zerrendarekin:

1) Aurreko bilerako akta irakurri eta onestea.

2) Nafarroako Liburutegi Nagusi berriaren proiektua.

3) Nafarroako liburutegiekin lotutako beste zenbait gai interesgarri.

4) Artxiboei buruzko Foru Legearen lantaldeak egindako azken aurrerapenak.

5) Eskariak eta galderak.

2006ko martxoaren 22an, honako gai-zerrendarekin:

1) Aurreko bilerako akta irakurri eta onestea.

2) Batzordeak Artxiboei buruzko Foru Legearen lantaldeari egindako ekarpenen txostena.

3) Eskariak eta galderak.

2006ko urriaren 5ean, honako gai-zerrendarekin:

1) Aurreko bilerako akta irakurri eta onestea.

2) Artxiboei eta Dokumentuei buruzko Foru Legearen aurreproiektua aztertu (2006ko irailaren 22an).

3) Eskariak eta galderak.

2007ko apirilaren 17an, honako gai-zerrendarekin:

1) Aurreko bilerako akta irakurri eta onestea.

2) Txostena, Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legea onartzeari buruzkoa.

3) Eskariak eta galderak.

2007ko maiatzaren 23an, honako gai-zerrendarekin:

1) Egiteke zeuden bileretako aktak irakurri eta onestea.

2) Dokumentuen Ebaluaziorako Batzordearen kideak proposatzea.

3) Eskariak eta galderak.

4) Egun horretako akta onartzea.

**– Arkeologia Batzordea**

2004ko maiatzaren 21ean, honako gai-zerrendarekin:

- 1) Arkeologia Batzordea eratzea.
- 2) 2004an esku-hartze arkeologikoa egiteko eskariak aztertzea.
- 3) Eskariak eta galderak.

2005eko apirilaren 16an, honako gai-zerrendarekin:

- 1) Aurreko akta onestea.
- 2) Indusketa arkeologiko berriak egiteko eskari-  
ei buruzko txostena.
- 3) Eskariak eta galderak.

2006ko apirilaren 7an, honako gai-zerrendarekin:

- 1) Aurreko akta onestea.
- 2) 2006an indusketa arkeologikoak egiteko bai-  
men-eskabideak hausnartzea.
- 3) Eskariak eta galderak.

**– Ondare Batzordea**

2006ko ekainaren 26an, honako gai-zerrendarekin:

- 1) 2006ko maiatzaren 23an egindako bilerako  
akta irakurri eta onestea.
- 2) Interes Kultureleko Ondasunen espedientea  
irekitzeko proposamena.
- 3) Eskariak eta galderak.

**– Argitalpenen Batzordea**

2005eko urtarrilaren 20an, honako gai-zerrendarekin:

- 1) Aurreko bilerako akta irakurri, behin-behine-  
ko zuzenketak egin eta onestea.
- 2) 2004. urteko argitalpenen planaren balora-  
zioa eta azken emaitza.
- 3) 2005. urteko argitalpenen planaren behin-  
behineko aurkezpena.
- 4) Batzordekideek dituzten originalak jasotzea,  
horiei dagozkien txostenekin.
- 5) Argitalpenen Atalera heldutako original berri-  
ak eta zaharrak baloratzea eta banatzea.
- 6) Eskariak eta galderak.

2005eko ekainaren 14an, honako gai-zerrendarekin:

- 1) Aurreko bilerako akta irakurri, behin-behine-  
ko zuzenketak egin eta onestea.
- 2) 2005. urteko argitalpenen plana baloratzea,  
egundaino.
- 3) Batzordekideek dituzten originalak jasotzea  
(bakoitzak duenaren kopia erantsi da).
- 4) Argitalpenen Atalera heldutako original berri-  
ak baloratzea eta banatzea. Poesia bilduma berri-  
rako deitura hautatzea.
- 5) Eskariak eta galderak.

2006ko ekainaren 23an, honako gai-zerrendarekin:

- 1) Aurreko bilkuretako aktak irakurri eta ones-  
tea.
- 2) 2006. urteko argitalpenen planaren balora-  
zioa.
- 3) Argitalpenen Atalera heldutako original berri-  
en balorazioa.
- 4) Eskariak eta galderak.

2006ko abenduaren 21ean, honako gai-zerrendarekin:

- 1) Aurreko akta irakurri eta onestea.
- 2) 2006. urteko argitalpenen planaren balora-  
zioa.
- 3) Argitalpenen Atalera heldutako original berri-  
en balorazioa.
- 4) Eskariak eta galderak.

2007ko martxoaren 21ean, honako gai-zerrendarekin:

- 1) Aurreko akta irakurri eta onestea.
- 2) 2007. urteko argitalpenen planaren balora-  
zioa.
- 3) Eskariak eta galderak.

**6.** 2006ko urriaren 30ean egindako Osoko Bilkuraren aktaren I. eranskin gisa, Joaquín Llanso jaunak, Artxibo eta Liburutegien Batzordeko lehen-dakariak, Artxiboei eta Dokumentuei buruzko Legearen aurreproiektu bat aurkeztu zuen. Proiektuaren hasieran, ondokoen laguntza eskatzen zuen: Gobernuako teknikariena (Carlos Idoate jauna, Susana Herreros andrea) eta Nafarroako Artxibozainen Elkartearen ordezkariena (Luis Javier Fortún jauna eta José Luis Molins jauna) eta aholkulari batena legegintza arloko gaietzat (Lucía Costanilla andrea). Pertsona horiek eginda-

ko lanaren ondorio izan zen Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legea.

Carmen Jusué Simonena andrea Argitalpenen Batzordera joaten zen.

7. Kontseilua sortu zuen foru dekretuan ezarritakoaren kariatara Kontseiluak egindako jarduketan balantze orokorra oso positiboa da.

**8. eta 9.** Aurreikusita dago Kontseilu honen osaera, antolamendu eta funtzionamenduari buruzko erregelamendu bidezko garapen berria egitea. Hori Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legean ezarritakoa izanen da.

Iruñean, 2008ko apirilaren 11n

Kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

---

## **Galdera, haur eta gazteentzako buru-osasuneko zerbitzuko aldaketei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du haur eta gazteentzako buru-osasuneko zerbitzuko aldaketei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko apirilaren 4ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko apirilaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du haur eta gazteentzako buru-osasuneko zerbitzuko aldaketei buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Proiektua idatzia dago, eta ondokoen ekarpenen zain:

– Buru-osasuneko beste profesional batzuen.

– Psikologo Kliniko eta Egoiliarren Elkarte Nazionalarena.

– Haur eta gazteen adimen-osasunerako oinarritzko laguntza eta laguntza espezializatuaren arteko koordinazioa hobetzeko batzordearena.

Koordinazio sistema bat eta deribatzeneko protokolo bat prestatu dira ondoko hauekin batera: Oinarritzko Osasun Laguntza (pediatria), Gizarte Gaiak eta Hezkuntza.

Tuteraan atal bat sortzeko aukera azterketa fasean dago, psikiatra bat eta bi psikologo kliniko izanen dituena.

Plan Funtzionala egin da eraikin berriaren diseinurako.

Proiektuan sartzen diren programen artean, egun, abian da "Nahaste psikotiko eta afektiboak" deiturikoa, eta aurreikusita dago "Janaren trastornoak" izeneko programa eta "Ospitaleratze partziala" deiturikoa 2008. urtean zehar sartzea.

Iruñean, 2008ko apirilaren 16an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

## **Galdera, Vinsak Sarrigurenen eraikitako 73 etxebizitzaren jabeek eraikuntza-akats larriak direla-eta aurkeztutako erreklamazioei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du Vinsak Sarrigurenen eraikitako 73 etxebizitzaren jabeek eraikuntza-akats larriak direla-eta aurkeztutako erreklamazioei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko apirilaren 4ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko apirilaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du VINSAk Sarrigurenen, prezio tasatuko 73 etxebizitzako eraikin batean, sustatutako jarduketei buruz. Hona hemen Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

1- Departamentuak ba al du erreklamazio horien berri?

Bai: salaketa bat dago elementu komunen akatsengatik, eta 31 salaketa etxebizitzetako elementu pribatiboek dituzten akatsak direla eta.

2- Onartu al da erreklamazio horietakoren bat?

Bai, elementu komunen akatsak direla-eta jarritako salaketei dagokienez, eraikina ikuskatu da, VINSari eskatu zaio akatsak konpon ditzan eta horiek konpondu dira, salbu sotoko trastelekuetan egin beharreko konponketa bati dagokionez, hori

bideraezina baita; izan ere jaberren batek ez du bere trastelekura sartzeko baimenik ematen.

Elementu pribatiboen salaketen kasuan, VINSARI behin eta berriro eskatu diogu horiek konpon ditzan. Kasu batzuetan ongi egin du, baina beste batzuetan ez da lortu bilaturiko emaitza. Gaur egun, VINSA konpontzen ari da oraindik konpondu gabe zeuden akatsak.

3- Zer neurri hartu ditu Etxebizitza Departamentuak –berak du VINSa sozietate publikoaren ardura– etxebizitza horietan gertatzen ari diren bizigarritasun-arazo larriak konpontze aldera?

Aurreko puntuan adierazitako eskakizunak eta aginduak.

4- Zer neurri hartu ditu Etxebizitza Departamentuak –berak du Vinsa sozietate publikoaren ardura– sustapen horren etxegilearen aurka, kasu-ko kalte-ordainak eskatze aldera?

Vinsak, 2007ko udan, “Dragados – Navarconsa” enpresari jakinarazi zion ez ziola itzuliko lanaren zenbatekoaren %5eko atxikipena. Enpresa eraikitzaile horrek egindako konponketak ez zirenez behar bezalakoak izan, VINSAk, 2008ko martxoan, adituen iritzia eskatu zuen eta beste enpresa bati eskatu zion konponketak egin zitzaizkion, egin gabe zeudenak nahiz gaizki egindakoak, eta horretan dihardu.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko apirilaren 16an

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: José Carlos Esparza Sáez

## **Galdera, lurralde antolamenduko planetan Nafarroa Atlantikorako aurreikusten diren museo etnografikoei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du lurralde antolamenduko planetan Nafarroa Atlantikorako aurreikusten diren museo etnografikoei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko martxoaren 28ko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko apirilaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Leitzan, Baztanen eta Arizkunen egiten diren proiektu etnografikoei buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Lurraldearen antolamenduko planak (LAP) dira lurraldearen antolamendurako eskualdez azpiko tresnak, eta horien proposamenek edo erabakiek lotura-maila ezberdinak izan ditzakete. Nafarroa Atlantikoko lurralde antolamendurako planaren aurrerapena izapidetu ostean, plana proiektu fasean dago; beraz, Nafarroako Gobernuak ez dionez behin betiko onspena eman, prestatzen ari den agiri bat da eta aldaketak izan litzake.

Lurraldearen antolamenduko planek ezin dute inolaz ere ezarri edo programatu zein izanen den proiektu zehatzen exekuzioa eta finantzaketa.

Planaren aurrerapenean jasotako proposamen horiek –galderaren xedea den arloan– irizpideak dira, eskualde horretarako kulturagune orekatu bat izan daitekeena egite aldera. Hortaz, lurraldearen antolamenduko planek ez dituzte “proiektuak” proposatzen, baizik eta garatu beharreko ildoak, ekimen publikoz –udal zein foru mailan– nahiz pribatuz egiteko.

Ildo horretatik, Nafarroako Gobernuak, Kultura eta Turismo Departamentuaren bidez, ez du Leitzako Harrijasotzaile Museoa proiektuari buruzko berririk izan, ez bada herri kirolei buruzko bilduma bat erakusteko nahia, 90eko hamarkadan adierazia.

Era berean, ez dakigu Baztanen Caro Baroja Museoa proiektua egiten den. Deitura-akatsen bat izan liteke.

Arizkungo Santxotena Museoaren kasuan, ez da proiektu bat, baizik eta ekipamendu bat, duela urte batzuk publikoarentzat zabaldu zena. 2001ean, Nafarroako Gobernuak 52.204,39 euroko dirulaguntza eman zuen, Santxotena atari zabaleko eskultura museoa eraikitzeo proiektua idazteko. 2002an, 215.932,02 euro ordaindu ziren Santxotena atari zabaleko Eskultura Museoa eraikitzeo.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko apirilaren 17an

Kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

## **Galdera, Europar Batasunaren zerbitzuen gaineko zuzentarauaren eraginari buruzko azterlan bat egin behar duen batzordeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Europar Batasunaren zerbitzuen gaineko zuzentarauaren eraginari buruzko azterlan bat egin behar duen batzordeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko apirilaren 4ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du zerbitzuei buruzko zuzentarauaren transposiziorako batzordeari buruz. Hona Nafarroako Gobernuako eledun eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariaren erantzuna:

Lehenik eta behin, galderari erantzun baino lehen, adierazi behar dut, galdera hori Lehendakariak, Justizia eta Barne kontseilariari zuzenduta zegoen arren, Gobernuako eledun eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariari dagokiola horri erantzutea, ordezkatzeko dudaren departamentuari esleitutako eskumenen esparru materiala aintzat harturik –hori irailaren 3ko 120/2007 Foru Dekretuaren bidez ezarri zen–.

1. Noiz eratu da aipatu batzordea? Zenbat bilera eta zein egunetan egin ditu gaur arte?

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak emandako Zerbitzuei buruzko 2006/123/CE Zuzentarauaren transposizioa Nafarroako Foru Komunitateko antolamendu juridikoan egiteko Batzordea sortu zen Nafarroako Gobernuaren erabaki bidez. Erabaki hori hartu zen 2007ko urriaren 29an egindako bilkuran, eta Gobernuako eledun eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak proposatu zuen.

Batzorde hori 2007ko azaroaren 9an eratu zen, Nafarroako Jauregian izandako bilera batean.

Batzordea eratzeko lehen bileran, ondoko gaiak jorratu ziren: zuzentarauaren edukia, bere esparru materiala eta denbora-eremua eta transposizioa egiteko hiru faseak (araudia identifikatzea

eta ebaluatzea, araudia sinplifikatzea eta administraziozko lankidetzak). Halaber, oniritzia eman zitzaion Estatuko Administrazio Orokorra diseinatutako fitxei, identifikatu ahal izateko zein diren zuzentarauaren artikuluetatik gehien eragiten diotenak egun indarrean den foru araudiari –lege-mailakoak nahiz arau-mailakoak izan– eta haien gainean jarraibide batzuk emateko.

Bestalde, Batzordeak, transposizio prozesu horretan Nafarroako Foru Komunitateko administraziozko departamentu bakoitzaren jarduketak bultzatzeko eta koordinatzeko duen funtzioa betetzeko, erabaki zuen departamentu ezberdinetako idazkaritza tekniko nagusiei agintzea beren identifikazio-fitxak bete zitzaion, Batzordearen laguntzarekin –laguntza hori bere idazkariaren bidez gauzatu zen–, eta epe bat ezarri zuen, azaroaren 27a, identifikazio-fitxa guztiak Batzordeari igortzeko.

Behin igarota Zerbitzuei buruzko Zuzentarauaren eraginpekoa izan zitekeen foru araudia identifikatzeko ezarritako epe hori –epe horretan Idazkaritza Tekniko guztiek bete zuten eskatu zitzaion zeregina–, 113 prozedura identifikatu ziren, eta bigarren bilera baterako deialdia egin zen. Bilera hori azaroaren 28an egin zen, hori ere Nafarroako Jauregian.

Bigarren bilera horretan, Batzordeak iritzi positiboa adierazi zuen ezarritako programaren bete-tze-mailari buruz, eta identifikazio-prozesuan sortutako kasuistika berezia aztertu zuen. Hori horrela, adostu zuen Ekonomia eta Ogasun Ministerioari igorriko zizkiola araudia identifikatzeko fitxa guztiak. Hori Erakundeekiko Harremanetarako zuzendari nagusiaren bidez egin zuen, bera baita transposizio-prozesuan solaskide Estatuarekiko harremanetan –hala dago ezarrita Batzordea eratzen duen hitzarmenean–.

Azken bilera horretatik hona, behin araudia identifikatzeko fasea amaituta, Batzordea ez da berriro bildu. Zain daude Estatutik –autonomia erkidegoetako eta Espainiako Udaleri eta Probintzien Federazioko (FEMP) solaskideekin koordinatuta– hurrengo ebaluazio faserako deia egin dezaten, ebaluazio lanak erraztu eta antolatuko dituzten tresnak eman ditzaten (Europako Batzordearen Galdesorta eta Ebaluaziorako Eskuliburua) eta, azkenik, jarduketan egutegia ezar dezaten administrazio publiko guztientzat (estatukoa, auto-



nomikoak eta tokikoak). Horretarako, joan den apirilaren 17an, Ekonomia eta Ogasun Ministerioan, bilera bat egin zen autonomia erkidegoetako, Ministerioetako eta Espainiako Udalerri eta Probintzien Federazioko solaskide bakarrekin, eta Zerbitzuei buruzko Zuzentarauaren transposizioa jorratu zuten. Bilera horretara deitu zuen Politika Ekonomikorako eta Konkurrentziaren Babeserako Idazkaritza Nagusiak, ondokoen berri emateko xedearekin: identifikazio fasearen balantzea, ebaluazio fasea eta, horrekin batera, Europako Batzordearen Galdesorta eta Ebaluaziorako Gidaliburua, eta fase horretan koordinazio sektorialaren funtzionamendu egokia bermatzeko aurreikusitako irizpideak eta leihatila bakarraren ezarpena. Bilera hori aurrerapausu handia izan denez transposizio-prozesu horretan, aurrera diezazuket Batzordea datozen egunotan bilduko dela, hasiko den ebaluazio fase horretarako beharrezkoak diren jarduketak bultzatzeko eta koordinatzeko, Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioaren barne esparruan.

2. Nork osatzen du batzordea? Zehaztu ondokoak: izenak eta karguak; haiek izendatzeko modua; lanaldia; ordainsariak, baldin eta halakorik badago, haren jarduna erregulatzen duten arauak edo funtzionatzeko sistema eta esleitu zaion lekua edo egoitza.

Ondoko hauek dira Zerbitzuei buruzko Zuzentarauaren transposiziorako Batzordeko kideak: Erakundeekiko Harremanetarako zuzendari nagusia (Lola Eguren Apesteguía andrea), Lehendakaritza zuzendari nagusia (Ildefonso Sebastián Labayen jauna), Modernizazioaren eta Administrazio Elektronikoaren zuzendari nagusia (José Luis Menéndez Rodríguez jauna), Toki Administrazio zuzendari nagusia (Pedro Pegenaute Garde jauna) eta Nazioarteko Garapeneko zuzendari nagusia (Juan Franco Pueyo jauna). Idazkaria, hitzarekin baina botorik gabe, Parlamentuarekiko eta beste Erakundeekiko Harremanetarako Zerbitziburua da (José Miguel Gorriño Ochoa jauna). Batzordekide horien guztien izendapena batzordea eratzen duen hitzarmenari jarraikiz egin da.

Batzordeko lehendakaria da Erakundeekiko Harremanetarako zuzendari nagusia eta, beraz, hari dagokio horren ordezkari ere izatea, bileretarako dei egitea eta gai-zerrenda ezartzea, eta Estatuarekiko harremanetan solaskide lanak egitea transposizio-prozesuan.

Jardunari dagokionez, Batzordeari dagokio ondoko funtzioak betetzea:

– Nafarroako Foru Komunitateko administrazio-ko departamentu bakoitzak transposizio-prozesu

honetan egin beharreko jarduketak bultzatzea eta koordinatzea.

– Jarduketa programa bat diseinatzea eta programatutako jarduketan jarraipena eta kontrola egitea departamentuen artean.

– Administrazioen arteko lankidetzak eta elkarlanean tresnak aztertzea eta, kasua bada, sustatzea; horiek beharrezkoak dira jarduketa bateratu baterako, estatu, autonomia nahiz toki mailan.

– Nafarroako Foru Komunitateari dagokion Ebaluazio Txostena prestatzea, ondokoak adieraziz: araudia eta ezabatu, aldatu edo justifikatu beharreko prozedurak.

Soldata eta ordainsariei dagokienez, funtzio horiek betetzeagatik bere kideei ez zaie inongo soldatarik ezarri.

Funtzionamendu sistemaren kasuan, Batzordea egokitu beharko da eratzten duen hitzarmenaren ezarritakora, bai eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko 2004ko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legean kide anitzeko organoentzat ezarritakora ere.

Azkenik, esleitu zaion leku edo egoitzari dagokionez, adierazi behar dizut Batzordeak ez duela egoitza ofizialik. Batzordea biltzen da bere kideek zehazten duten lekuan, edo, kasua bada, dagokion deialdiak zehazten duen lekuan.

3. Batzorde horrek ba al du jarduketa planik? Baldin badu, zer epe du jarduteko eta zer arlo jorratuko dira edo jorratzen ari da? Planik ez baldin badu, zer azterlan edo/eta azterketa egiteko agindu zaio? Nork edo nola eman dio agindua?

Ezinbestez, Batzordearen jarduketa planak lotuta egon beharko du transposizio-prozesuan uneoro ezartzen den jarduketa programarekin. Programa hori ezarriko dute hala Europako Batzordeak –Europar Batasun osoarentzat–, nola Espainiak ere –autonomia erkidegoekin eta Espainiako Udalerri eta Probintzien Federazioarekin batera, eta Espainiako administrazio publiko guztientzat–.

Ildo horretatik, aurreratzen dizut zein izanen den jarduketa programa eta zein den ezarritako egutegia estatuko eta autonomia erkidegoetako araudia ebaluatzeko eta aldatzeko:

- 2008ko apirileko lehen hamabostaldia: bilera ministerioetako, autonomia erkidegoetako eta Espainiako Udalerri eta Probintzien Federazioko solaskide bakarrekin.

– Ebaluazio fasearen aurkezpena (eskuliburua, galdesorta eta egutegia)

– Ebaluazio faserako teknikoki prestatzeko saioa

- 2008ko apirileko lehen hamabostaldia: estatuko eta autonomietako araudia ebaluatzeko fasearen hasiera.

- 2008ko apirileko 2. hamabostaldia: ebaluazio sektorialetarako bileren hasiera (ministerioak autonomia erkidegoekin) eta koordinazio horizontalerako bilerak (ministerioetako eta autonomia erkidegoetako solaskide bakarrak).

- 2008ko maiatzeko 2. hamabostaldia: lege-maila duen estatuko araudiari buruzko galdesortak betetzen amaitu eta behin-behineko emaitzak aurkeztu Gobernuaren Gai Ekonomikoetarako Batzorde Delegatuari.

- 2008ko ekaineko 2. hamabostaldia: Gobernuaren Gai Ekonomikoetarako Batzorde Delegatuak onartzen ditu estatuko araudiaren ebaluazioaren emaitzak, eta lege-maila duen estatuko araudia aldatzeko fasea hasten da.

- 2008ko iraila: lege-mailarik ez duen estatuko araudiari buruzko galdesortak betetzen amaitu eta behin-behineko emaitzak aurkeztu Gobernuaren Gai Ekonomikoetarako Batzorde Delegatuari.

- 2008ko urria: Gobernuaren Gai Ekonomikoetarako Batzorde Delegatuak onartzen ditu estatuko araudiaren ebaluazioaren emaitzak eta lege mailarik ez duen estatuko araudia aldatzeko fasea hasten da.

- 2009ko urtarrila: arau autonomikoei buruzko galdesortak betetzen amaitu.

- 2009ko otsaila: Gobernuaren Gai Ekonomikoetarako Batzorde Delegatuak onartzen ditu arau autonomikoen ebaluazioaren emaitzak eta arau autonomikoak aldatzeko fasea hasten da.

- 2009ko urritik abendura: txostenak igortzen zaizkio Batzordeari IPMren bidez.

Iruñean, 2008ko apirilean

Nafarroako Gobernuko eledun eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Alberto Catalán Higuera

## **Galdera, Nafarroako Parlamentuak onetsitako erabaki bat betetze aldera Nafarroako Gobernuak eginiko izapideei buruzkoa. Erabaki haren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen zen beharrezkoa den prozedura abiaraz zezan Ezkabako Gotorlekua eta bere lurak eskuratzeko.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Nafarroako Parlamentuak onetsitako erabaki bat betetze aldera Nafarroako Gobernuak eginiko izapideei buruz. Erabaki haren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen zen beharrezkoa den prozedura abiaraz zezan Ezkabako Gotorlekua eta bere lurak eskuratzeko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko apirilaren 4ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du eta idatzizko erantzuna eskatu, jakiteko zein izapide egin diren orain arte Alfonso XII.aren gotorlekua berreskuratzeko eta horrekin zerikusia duten beste gai batzuei buruz Nafarroako Parlamentuak onetsitako erabakia betetzeko. Hona hemen Nafarroako Gobernuko eledun eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariaren erantzuna:

Alde batetik, Nafarroako Parlamentuak, aipaturiko Ebazpen horren bidez –2007ko azaroaren 9ko Osoko Bilkuran onetsi zen eta Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen azaroaren

15ean–, eskatu zion Nafarroako Gobernuari berriro abiaraz zezan, hiru hilabeteko epean, beharrezkoa zen prozedura gotorlekuaren instalazioak eta bere lurak eskuratzeko, Defentsa Ministerioaren lagapenaren bidez.

Eskakizun hori betetzeko, Gobernuako eledun eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentuak, Erakundeekiko Harremanetarako zuzendari nagusiaren bidez, idazki bat bidali zion, joan den urtarrilaren 2an, Defentsa Ministerioiko Erakundeekiko Harremanetarako zuzendariari. Gutun horren bidez, Nafarroako Parlamentuaren erabakia jakinarazten zitzaion, eta proposatzen zitzaion beharrezkoak ziren elkarrizketak has zitezen Estatuko administrazio orokorraren eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren artean –Defentsarako Estatu Idazkaritzaren eta ordezkatzan dudan departamentuaren bidez–, aipaturiko gotorlekua lagatzea ahalbidetuko duen tresna juridikoa zehazte aldera, eta horren ondorioz, proiektu integral bat garatze aldera, instalazioa aisiarako eta xede kultural eta sozialetarako erabiltzeko.

Gaur egun, jakinarazi behar dizut Defentsa Ministerioak oraindik ez duela aipaturiko bilera horretara deitu.

Bestalde, Defentsa Ministerioak Nafarroako Foru Komunitatean duen ordezkaritza aintzat har-

tuz eta informatzeko asmo hutsez, arestian aipaturiko gutun horren kopia bat igorri zitzaion Defentsa Ministerioak Nafarroan duen ordezkariari.

Bestalde, Parlamentuak ere eskatu du mahai bat osa dadin, Ezkaba mendiko eta Alfontso XII.aren gotorlekuko inguruarentzat izan daitezkeen aukerak aztertzeko. Mahai hori arlo ezberdinetako eragileek osatuko dute.

Ildo horretatik, jakinarazten dizut lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zela 1997ko urriaren 23an, Ezkaba mendiaren jabeak diren udalerrietako udal eta kontzejuen eta garai hartan Nafarroako Gobernuako Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua zenaren artean izandako elkarrizketen eta bileren ondorioz, ondoko hauen artean: aipaturiko departamentua, Sociedad Cultural Deportiva Recreativa Anaitasuna, Nafarroako Aurrezki Kutxa eta Berriozar, Antsoain, Berriobeiti, Ezkabarte eta Txulapaingo udalak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua betetzeko.

Iruñean, 2008ko apirilean

Nafarroako Gobernuako eledun eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Alberto Catalán Higuera

## **Galdera, ikerketa planari eta ikerketa-proiektu eta proiektu teknologiko berriak garatzeko Nafarroako beste enpresa publiko edo erakunde batzuekin lankidetzan aritzeari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du ikerketa planari eta ikerketa-proiektu eta proiektu teknologiko berriak garatzeko Nafarroako beste enpresa publiko edo erakunde batzuekin lankidetzan aritzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko apirilaren 4ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du ikerketa planari eta ikerketa-proiektu eta proiektu teknologiko berriak garatzeko Nafarroako beste enpresa publiko edo erakunde batzuekin lankidetzan aritzeari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

1.- Ikerketa Biomedikorako Planari buruzko informazioa erantsi da.

2.- Ikerketa Biomedikorako Plan Estrategikoak xede bikoitza dauka: herritarren artean nagusitasun berezia duten gaixotasun zehatzen ikerketa sustatu, batetik; eta, bestetik, teknologia eta eza-gutzarako kapitala handitu Nafarroako Foru Komu-

nitateko I + G-n. Plan horren oinarrian dagoen ildo estrategikoak sustatzen du hirugarrenekin lankidetzan aritzea, sinergieztan baliatze aldera eta ikerketaren kalitatea hobetze aldera. Hori horrela, plan horren esparruan, Protokolo Orokor bat sinatu zen Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin. Protokolo horretan ziharduten elkarlanean, duela zenbait hilabetetatik hona, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak.

Tresna horrek hiru alderdi garatu nahi ditu: prestakuntza, ikerkuntza eta berrikuntza.

**Prestakuntza:** etengabeko prestakuntza aurrera eramanez ahal izateko –medikuena eta, orokorrean, osasun alorreko profesionalena–, ingeniari-tza bezalako alorretan, eta ikastaro nahiz mintegietan parte hartzeko, bai eta osasun alorreko ingeniari-tzetan egiten diren jarduerak akademiko guztietan ere.

**Ikerkuntza:** bi erakundeok ikerkuntza sustatuko dugu gure profesionalen ikerketa-lan eta azterlan guztietan, bai eta horien hedapenarekin zerikusia duten jarduerak ere, interes komunez diren alorretan.

**Berrikuntza:** alderdi berritzaileenetako bat da berrikuntza sustatzea zientzia eta osasun alorreko diziplinek eta ingeniari-tza aplikatuaren diziplinek bat egiten duten alor horretan; horri ekin zitzaion Protokolo hau sinatuz.

Protokolo horrek harreman batzuk sendotzen ditu, dagoeneko 2006ko erdialdetik bereziki bizi-gotuta zeudenak, berrikuntzaren alorrari dagokio-nez: protokoloaren xede nagusia da, alor horretan

eta ikerkuntzaren alorrean, gure profesionalen (bi erakundeetakoak) ideia zentzudun bakar bat ere ez geratzea aztertu gabe eta, kasua bada, Nafarroarentzat garapen bihurtzea.

Esparru horretan bertan, harremanak izan dira SODENArekin eta beste enpresa publiko batzuekin, hala eskatu diguten guztietan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzutik nahiz Osasun Departamentutik bertatik.

Protokoloaren garapenak sinergia garrantzitsua sortuko ditu bi erakundeen elkarlanari esker. Halaber, aukera emanen du enpresa publikoek parte-hartze biziagoa eta egitura izan dezaten, Nafarroarentzat ezagutza eta aberastasuna sortzeko aukerarik galtzen ez dela ziurtatzen duen eredu batean, alor horri dagokionez.

3.- Neurozientziak Ikerketarako Plan Estrategikoan lehentasuna duen ildoetako bat da. Gainera, Ehun Neurologikoen Bankoa dugu, egungo Ikerketa Biomedikorako Zentroan kokatua, eta horrek aukera ematen digu laginak baldintza ezin hobetan edukitzeko, beharrezkoak direnak Parkinsona eta Alzheimerre bezain patologia zabalduak iker-tzeko.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko apirilaren 24an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

(Oharra: aipatutako eranskina foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

## Galdera, Informazioaren eta komunikazioaren teknologien sektoreari buruzko plan estrategikoaren gainekoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Informazioaren eta komunikazioaren teknologien sektoreari buruzko plan estrategikoaren gainean.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko apirilaren 4ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak (IKT) sektorearen plan estrategikoari buruz. Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

1. IKT sektorearen plan estrategikoa egun garatzen ari da, eta etengabeko ebaluaziopean dago. Hori horrela izanik, oraindik ez da likidatu, eta beraz, ez da bidezkoa galderan planteatzen den dokumentazioa bidaltzea.

Gogorarazi behar da IKT sektorearen plan estrategikoa 2004. urtean hasi zela prestatzen. Plan hori informatikari buruzko mahaia deiturikoaren kariatara planteatu zen, eta mahai hartatik ere Atana eskualdeko IKT enpresen lehen elkarte sortu zen. Uneotan, Atana osatzen dute sektoreko 70 enpresak baino gehiagok.

Beraz, uneotan, IKT sektorearen plan horren jarduerak aurrera eramaten ari dira, eta jarraipen bat egiten ari da jakiteko jarduera horiek egiten ari diren ala ez. Jarduera horiek laburbilduta jaso dira dokumentu honi atxikitako I. eranskinean, non ikus daitekeen ezen aurreikusitako jardueren betetze-maila, amaitu gabe egon arren, dagoeneko %77ra heltzen dela.

2. IKT sektorearen plan estrategikoan proposatzen da cluster bat sortzea sektorea dinamizatzeko aldera.

2006. urtean zehar, II. Plan Teknologikoaren esparruan, proiektu bat jarri zen abian IKT sektoreko clusterra dinamizatzeko. Proiektu horrek ez zuen

barne hartzen Cluster Elkarte bat gauzatzea erakunde juridiko gisa, baizik eta intereseko taldeak sortzea eta horien dinamizazioa egitea. Cluster kontzeptua ez da definitzen erakunde juridiko moduan; bere xedea da enpresen eta beste eragile batzuen arteko harreman ekonomikoa sustatzea. Cluster hurbilketa duten proiektuek aukera ematen dute etorkizuneko estrategiak eztabaidatu eta adosteko, eta hobetzeko ekintzak definitzeko, enpresa mailan nahiz Nafarroa mailan, definitutako estrategiekiko koherenteak diren enpresak dauden eskualdeetan.

IKT sektorearen clusterraren lan-ildo horretan, 4 lantalde lehenetsi eta abian jarri ziren:

- 1. taldea: "Produktu berekia" duten enpresak – aplikazioak
- 2. taldea: "Zerbitzu" enpresak – integratzaileak eta neurritan egindako produktuak
- 3. taldea: Kontratu handiak: identifikazioa eta lorpena
- 4. taldea: I + G proiektuak balioestea eta merkaturatzea, erakunde teknologikoen IKTn

Zenbait bilera egin zen talde bakoitzean, beharrrak baloratzeko eta abian jarri beharreko ekintzak definitzeko. Azkenik, 18 ekintza atera ziren guztira, sortu zituen taldea alde batera utzita. Ekintza horiek 7 erronkatan sartzen dira. Ekintzak publikoaren aurrean aurkeztu ostean, horietariko batzuk abian jarri dira. Hori guztia "clusterticnavarra.es" blogean dago zentralizatua, eta bertan jasotzen dira ekintza plan honen aurrerapen guztiak.

Ekintzak abian jartzen zirela zaintzeko, jarraipenerako batzorde bat eratu zen. Batzorde horretan ondokoak daude: Atana Elkarte, talde bakoitzeko ordezkari bat, administrazioa, Anain eta Cein.

Nafarroako Gobernuaren eskumenen antolaketari berriarekin, Gobernuak 2007ko udan eratu zenetik, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak bere gain hartu zituen informazioaren gizartea sustatzeko eskumenak, bere Berrikuntza-aren eta Informazio Gizartearen Zerbitzuan.

Horri esker, ahaleginak batu dira eta era koordinatuago batean bultzatu da IKT sektorearen eta bere clusterraren sustapena, Nafarroan III. Plan Teknologikoa abian jartzearekin batera. Alderdi horretan dihardugu gaur egun ANAIN eta CEINEkin elkarlanean.

**3.etik 6.era.** Lau galdera horiei emandako erantzuna ikus daiteke I. eranskinean, jarduera ezberdinen betetze-maila jasotzen duen atalean.

Iruñean, 2008ko apirilaren 24an  
Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:  
José María Roig Aldasoro

### I. ERANSKINA

IKT sektorearen plan estrategikoa eta azterlana

Neurriak	Egungo egoera	
<b>1. IKT sektorea dinamizatzeko plana</b>		
1.1. ekintza. Clusterra formalizatzeko jarduketak egitea.		
1.1.1. neurria. IKT sektorearen garapenean sartuta dauden sektore guztiei deialdia egitea eta azalpenak ematea.	✓	Lan hori 2006an egin zen, 4 lantaldeak eratu zirenean, eta IKT clusterrean dago azaldua.
1.1.2. Nafarroako Foru Komunitateko IKT sektoreko Cluster Elkartea eratzea.	✓	
1.1.3. neurria. Ardurak esleitzea eta Clusterraren Batzar Nagusia egitea.	✓	
1.2. ekintza. Nafarroako IKT Clusterra abiarazteko jarduketak.		
1.2.1. neurria. Clusterra koordinatzea eta interes-taldeak sortzea.	✓	2006an egin zen.
1.2.2. neurria. Zaintza Teknologikoko Sistema eratzea.	✓	E-intelligence aholkularitzaren bidez, zaintzarako plataforma bat prestatu da Nafarroako teknologia zentro guztientzat, bai eta ATANA, CES eta CEIN S.A.rentzat ere, programa paralelo baten bidez.
<b>2. Eskaintza profesionalizatzeko plana</b>		
2.1. ekintza. Profil profesional berriak hautematea.		
2.1.1. neurria. Profil profesionalen behatokia.	*	ATANAK lanean dihardu unibertsitatearekin eta zentro profesionalekin, ikasgai eta ikasketa profesionalak sartzeko, ondoko xedearekin: baliabide-falta konpontzea epe ertainera edo luzera.
2.2. ekintza. Prestakuntza-programak taxutzea eta ematea.		
2.2.1. neurria. Baliabideak eta eskumenak esleitzea eta prestakuntza-programak taxutzea.	✓	ATANAK eta SNEK Prestakuntza Plan bat egin dute, ikastaro zehatzetarako.
2.2.2. neurria. Profil profesionalak sartzeko entitate eskudunen prestakuntza-programetan.	✓	Bikaintasun zentroak oso ikastaro espezializatuak ari dira egiten Microsoft eta SUNi buruz, xedetzat ziurtagiri ofizialak dituztenak.
<b>3. Bikaintasun plana</b>		
3.1. ekintza. Nafarroako IKT sektorearen irudia hobetzea.		
3.1.1. neurria. Plan estrategikoak eta kudeaketa planak prestatzeko laguntza ematea.	✓	2006an eta 2007an prestakuntza ikastaroak egin dira Estrategiak enpresan duen garrantziari buruz, eta lehiakortasun-arduradunek laguntza eman diete beren plan estrategikoak egiteko beharra zuten enpresei.
3.1.2. neurria. Berrikuntzaren azterketa banakatuak.	*	Sektoreko enpresetan berrikuntza sustatzeko, aurtentzako sentsibilizazio jardunaldiak eginen ditu CEIN S.A. enpresak ATANArekin batera.
3.1.3. neurria. IKT sektoreko enpresentzako kalitate araudien ziurtagiria.	✓	ATANAK nazio-mailako AETIC elkartearekin dihardu CMMI ziurtagirien alorrean. 2007an, onetsi zen CMMI ziurtagiriei babesa ematea lehiakortasunaren bidez.
3.1.4. neurria. Marketinero jardueretara joateko eta egiteko laguntza ematea (azokak, batzarrak, hitzaldiak eta abar).	✓	Nazioarteratze plana, ATANA-Ganbera

<b>4. IKT sektoreari teknologia transferitzeko plana</b>		
4.1. ekintza. Sektoreko beste eragile eta enpresa batzuekin lankidetzan aritzea.		
4.1.1. neurria. Lantaldeak eratzea IKT sektoreko entitateen eta Nafarroako produkzio sektoreetako elkarte eta enpresen artean.	✓	EUROINNOVA NAFARROA programaren barnean, Innovatic jarduera prestatu da; bere xedea da lankidetzan sustatzea IKT sektorearen eta nanoteknologiaren, energia berriztagarrien eta bioteknologiaren sektoreen artean. 11 proiektu atera dira eta aurten garatuko dira.
4.1.2. neurria. Teknologia zentron eta IKT enpresen arteko lankidetzan garatzea.	✓	Innovatic-en proiektu batzuetan teknologia zentroak ere parte hartzen ari dira.
4.2. ekintza. Goi teknologiako enpresetan bideragarritasun planak eta plan estrategikoak garatzeko laguntza ematea.		
4.2.1. neurria. Sentsibilizazio jarduerak prestatzea indarra hartzen ari diren sektoreetan diharduten ikerketa taldeentzat.	✓	Oinarri teknologikoko enpresa berritzaileak (EIBT): xedea da laguntza ematea Foru Komunitatean izaera berritzailearekin eta oinarri teknologikoarekin sortzen diren enpresa guztiei. Sare bat eratu da unibertsitateetan eta teknologia zentroetan diharduten eragile guztiekin, oinarri teknologikoko enpresa berritzaileen proiektu guztiak hautemateko eta zabaltzeko.
4.2.2. neurria. Goi teknologiako enpresetan bideragarritasun planak eta plan estrategikoak garatzeko laguntza ematea.	✓	
4.3. ekintza. Indarra hartzen ari diren sektoreei laguntzea.		
4.3.1. neurria. Goi teknologiako proiektuei laguntza emateko funts publiko bat sortzea.	✓	Start up (Cein), Sodena, NGA
4.3.2. neurria. Indarra hartzen ari diren sektoreei laguntza ematea leku fisikoari dagokionez.	✓	2007an IKT haztegi bat inauguratu zen CEINen, IKT sektoreko enpresa berritzaileak bertan koka zitezten, eta haien garapenerako babes handiagoa eta aholkularitza emateko.
4.3.3. neurria. Administrazioetik lehentasuna ematea indarra hartzen ari diren sektoreei.	✓	Sodena
<b>5. Enpresetan informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera sustatzeko plana</b>		
5.1. ekintza. Teknologiaren erabilera sustatzea enpresen artean.		
5.1.1. neurria. Sustapen eta sentsibilizazio neurriak prestatzea informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabileri buruz.	✓	NavarraentIC (hedapena)
5.1.2. neurria. Prestakuntza eta sentsibilizazio plana, IKT proiektuei ekiteko moduari buruz.	✓	NavarraentIC (prestakuntza)
5.1.3. neurria. Laguntzak emateko programa, sektore zehatzetan enpresen arteko proiektuak babesteko.	✓	NavarraentIC (sektoriala)
5.1.4. neurria. Laguntza finantzariora ematea aholkularitza kontratatze eta enpresa txiki eta ertainetan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ezartzeko.	✓	Enpresa txiki eta ertainei eta mikroenpresa txiki eta ertainei laguntzea.
5.2. ekintza. Pizgarriak ematea informazioaren eta komunikazioaren teknologiak garatzeko ekimen berritzaileei.		
5.2.1. neurria. Sari bat sortzea IKT alorreko enpresa ekimenik onenarentzat.	✓	Web@ctiva
5.3. ekintza. IKT sektoreko tresna zehatzak erabilera eta garapena sustatzea.		
5.3.1. neurria. IKT sektoreko tresna zehatzak erakusteko proba pilotuak egitea.	✓	NavarraentIC (lantegi erakusleak)
<b>6. Komunikazio plana</b>		
6.1. ekintza. IKT eskaintzaren plan estrategikoa hedatzea.		
6.1.1. neurria. Hedapenerako prozedurak eta tresnak definitzea eta prestatzea.	*	Egiteke.
6.1.2. neurria. Hedapena prentsaren bidez.		
6.1.3. neurria. Aurkezpen ekitaldiak.		
6.2. ekintza. Informatzeko eta hedatzeko jarduketara etengabeak egitea.		
6.2.1. neurria. Plan estrategikoaren/IKT Clusterraren web orria.	*	WEB ataria definitzeko fasean
6.2.2. neurria. Telefonoz informatzeko linea bat aktibatzea.	✓	NavarraentIC (telefonoz aholkua emateko zerbitzua)
6.2.3. neurria. Informazio aldizkaria (paperean eta digitala)	*	Definitzeke.
6.3. ekintza. Kanpaina bat egitea Nafarroako IKT sektorearen irudia eta marka sortzeko.		
6.3.1. neurria. Nafarroako IKT sektorearen marka diseinatzea.	*	Definitzeke.
6.3.2. neurria. IKT sektorearen produktuen eta zerbitzuen katalogoa (web plataforman).	*	Definitzeke.

✓ Egin diren edo egiten ari diren jarduerak.

\* Egiteke edo definitzeke dauden jarduerak.

## Galdera, Nafarroako Gobernuaren fundazioei 2003tik 2007ra bitarteko ekitaldietan eginiko sortze zuzkiduren eta transferentzien zenbatekoei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuaren fundazioei 2003tik 2007ra bitarteko ekitaldietan eginiko sortze zuzkiduren eta transferentzien zenbatekoei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko martxoaren 28ko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko apirilaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak galdera egin du jakiteko zenbat egiten duten Nafarroako Gobernuaren fundazio publikoei 2003tik 2007ra bitarteko ekitaldietan eginiko sortze-zuzkidurek eta transferentziek. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuaren fundazio publikoei 2003tik 2007ra bitarteko aldian eginiko sortze-zuzkidurak eta transferentziak ondoko hauek izan dira, datu horien iturriek emandako informazioaren arabera:

Fundazioa	Sortze-zuzkidura	Transferentziak urteka				
		2003	2004	2005	2006	2007
Baluarte	30.050,00		1.000.000,00	1.000.000,00	1.000.000,00	1.000.000,00
Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioa	30.050,00		762.000,00	4.616.845,00	8.827.284,00	7.046.391,00
Energia berriztagarrien arloko prestakuntzarako fundazioa	30.000,00				28.924,99	31.950,00
Nafarroako Pertsona Helduen Tutoretzarako Fundazioa	3.005,07	150.000,	161.194,35	201.195,98	199.676,00	234.488,00
Miguel Servet	3.000,00	30.051,00	37.000,00	30.000,00	30.000,00	30.000,00
Nafarroako Kalitaterako Fundazioa	36.000,00	136.116,43	524.616,66	264.115,39	249.873,00	295.599,98
Yesa Fundazioa	30.000					

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikulua eta hurrengoak betetzeko.

Iruñean, 2008ko apirilaren 29an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:  
Javier Caballero Martínez



## **Galdera, jakiteko zer araudi aplikatzen zaion Nafarroako Gobernuaren fundazioetako lanpostuak betetzeari.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak galdera egin du jakiteko zer araudi aplikatzen zaion Nafarroako Gobernuaren fundazioetako lanpostuak betetzeari.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko martxoaren 28ko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko apirilaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak galdera egin du jakiteko zer araudi aplikatzen den fundazio publikoetako langileak kontratatzean. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuko fundazio publikoetan enplegua lortzeko edo langileak kontratatzeko aplikatzen den araudia da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legean ezarritakoa. Legeak, bere

III. kapituluan, fundazioei buruzkoan, horien araubide orokorra jorratzen du, 125. artikuluan, eta honakoa xedatzen du 3. atalean: "Lege pribatuen bidez antolatuko dira, kontratuei, aurrekontuei, kontabilitateari eta finantzen kontrolari buruz aplikatzekoa den arautegi administratiboan ezarritako berezitasunak deusetan galarazi gabe". Ez du ezartzen gerorako zehaztapenik fundazio horietan langileak kontratatzeko.

Erantsi behar da, osagarri gisa eta galderaren beste atal bati erantzuteko, Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 1. artikulua definitzen duen aplikazio esparruan ez direla jasotzen fundazio publikoetako langileak, eta aipaturiko 15/2004 Foru Legeak ere, fundazio horien araubide juridikoa ezartzen duenean, ez duela aurreikusten Estatutu hori ordeztu moduan aplikatzea.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikulua eta hurrengoak betetzeko.

Iruñean, 2008ko apirilaren 29an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

## **Galdera, Nafarroako Gobernuaren fundazio publikoetan enplegatutako pertsona kopuruari eta horien nortasunari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuaren fundazio publikoetan enplegatutako pertsona kopuruari eta horien nortasunari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko martxoaren 28ko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko apirilaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuaren fundazio publikoetan dauden langileei buruz. Hona Lehendakari-tza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Egindako galderari dagokionez, eta informazioa iturri ezberdinetatik eskuratu ondoren, ondoko datu estatistiko hauek igortzen dira, Nafarroako Gobernuaren fundazioetan dauden langileei buruzkoak. Fundazioak banan-banan ageri dira, langileen antzinatasuna parentesien artean zehaztuz eta ordena kronologikoan:

#### **Baluarteko Fundazioa:**

Ez du langilerik.

#### **Nafarroako Ondare Historikoa zaintzeko Fundazioa:**

2 langile: kudeatzailea (2003-09-01) eta administrari-ofiziala (2008-01-07).

#### **Energia berriztagarrien prestakuntzarako fundazioa:**

3 langile: LH bat (2005-01-05), ingeniari teknikoa (2006-12-27) eta goi-mailako ingeniaria (2008-03-17).

#### **Pertsona Helduen Tutoretzarako Fundazioa:**

9 langile: kudeatzailea (2001-11-27), gizarte-langilea (2002-01-26), administraria (2002-03-12), administraria (2002-11-11), administraria (2003-07-17), gizarte-langilea (2004-08-02), enpresa zientzietako diplomatua (2004-09-20), administraria (2005-10-03) eta gizarte-langilea (2006-03-01).

#### **Miguel Servet Fundazioa:**

6 langile: administrari-ofiziala (1998-05-25), administrari laguntzailea (2004-05-03), administrari-ofiziala (2005-01-10), erizain teknikoa (2006-03-01), laborategi-teknikoa (2007-11-05) eta laborategia (2008-01-09).

#### **Nafarroako Kalitaterako Fundazioa:**

3 langile: 2. taldea (2001-03-19), 5. taldea (2001-08-20) eta 1. taldea (2006-11-01).

#### **Yesa Fundazioa:**

Ez du langilerik.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikulua eta hurrengoak betetzeko.

Iruñean, 2008ko apirilaren 29an

Lehendakari-tza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak fundazio publikoei emandako jarraibideei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak fundazio publikoei emandako jarraibideei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko martxoaren 28ko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko apirilaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak galdera egin du jakiteko zer jarraibide eman zaizkien Nafarroako Gobernuaren fundazio publikoei Kontratuei eta Ondareari buruzko Foru Legeak aplika ditzaten. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Egindako galderari dagokionez, adierazi behar da Nafarroako fundazio publiko ezberdinek indarrean dagoen legediari men eginez dihardutela. Legedi horren barnean sartzen dira Kontratuei eta Ondareari buruzko foru legeak, eta beraz, ez da beharrezkoa jarraibide osagarririk ematea lege horiei dagokienez.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikulua eta hurrengoak betetzeko.

Iruñean, 2008ko apirilaren 29an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

HARPIDETZAREN PREZIOA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA
<b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b>
Urtebete ..... 47,00 euro	«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko ..... 1,25 »	Navas de Tolosa, 1
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko ..... 1,40 »	31002 IRUÑA